



ttipi-ttapa

TOKIKOM

2016ko irailaren 15a | XXXVI. urtea | 670. zenbakia

erran.eus



Herrietako bestak

Igantzi eta Urroz

ETXALAR/SARA → 19/37

Usategietako besta irailaren 25ean

ITUREN → 23

Joaldunen Eguna ospatuko dute irailaren 17an

BAZTAN → 31

Aroztegiko UGPSaren aurkako epaiketan Udala

KIROLA → 17/18/28

Mendi bizikleta ibilaldiak Lesaka, Bera eta Leitzan

Urtetik urtera laguntza murrizagoak Nafarroako euskarazko hedabideentzat → 4-5

Taloaren hitzordua irailaren 18an Leitzan

Taloaren bueltan, egun osoko festa antolatu dute aurten ere Plazaola Partzuergo Turistikoak eta Leitzako Udalak elkarlanean. Aurtengoa hamabigarren edizioa izanen da. 10:00etatik aurrera, artisauek, erakusketak eta herri-kirol saioa izanen dira. Taloak dastatzeko aukeraz gain, lehiaketa ere egingen dute.

→ 28



ELKARRIZKETA → 3

Konpostagailuentzako sistema berritzailea garatu dute hiru lagunek, tartean dira Diego Perez narbartearra eta Joseba Sanchez leitzarra.

URDAZUBI → 35

Paleolito garaiko grabatuak Urdazubian

Aranzadi Zientzia Elkarteak aurkitu ditu, eta Nafarroan aurkitutako zaharrenek lirakeke. Elkarteak harrobiko lanekin ez jarraitzeko ere aholkatu du.



KIROLA → 41

Kenpo Kai arte martzialean dabil-tza Edorta Iturria eta Unai Arburua Etxalarko osaba-ilobak. Duela gutti Munduko Txapelketan izan dira.



II. ARGAZKI LEHIAKETA erran.eus atarian

erran._{eus}
Mendialdeko Albistek



Aukeratu
**argazkirik
gustukoena**



Eman
zure botoa!

erran.eus

Irailaren 20ra arte

Parte-hartzaileen artean
Batzango zaporeak
produktuekin osatutako
SASKIA ZOZKETA-
tuko da.

1. Sartu **erran.eus** atarian.
2. Eman botoa.
3. Partekatu berria **facebooken**.
ZORTE ON!!

Eman
zure
botoa!

Joseba Sanchez (Leitza), Diego Perez (Narbarte) eta Ramon Planak (Vigo) argi dute konpostajea bultzatu eta sistema hobetzeko lan egin behar dela «lurrak emandakoa,

ongarri gisara, lurrari bueltatzen zaiolako». Konposta gaietan aditua da Joseba, gailuen diseinu eta garapenean lan egiten du Diegok eta hondakinen tratamendu biologikoan

dihardu Ramonek. Hiruen ezagutzak batuta konpostagailuentzako tapa bat sortu dute; erosotasuna eta erabilerari buruzko neurketa zehatzagoak egitea ahalbidetzen duena.

Joseba SANCHEZ eta Diego PEREZ | Konpostagailuentzako sistema berritzaile bat garatu duten gazteak

«Konposta egiteko erreztasunak eman behar dizkiegu erabiltzaileei»

E. IRAOLA | LEITZA

Zein izan da proiektuaren abiapuntua?

Euskal Herrian eta bereziki eskualdean, konpostaren aldeko apustua egin da. Bistakoa da hondakinak tokian bertan kudeatzen dituzten sistemak direla ekonomikoki eta sozialki jasangarriak eta ingurumenerari kalte gutxien eragiten diotenak. Konpostajea, hondakinen kudeaketa... hurbiletik ezagutzen ditugun arloak dira eta hobekuntza batzuk egitea posible zela ikusi genuen. Konpostagailuetan jartzeko tapa berezi bat sortu dugu erabiltzaileei erraztasunak eman eta erabilerari dagozkion neurketak modu zehatzago batean egiteko aukera eskainiko duena.

Erabiltzaileen erosotasuna aipatu duzue.

Ezinbestekoa da erabiltzaileei sistema erraz, garbi eta eroso eskaintzea. Konpostagailuetan askotan ozpin-eulia (*Drosophila melanogaster*) agertzen da eta ohartu gara hondakinak botatzerako orduan euli horiek ateratzea deserosoa dela zenbait erabiltzaileentzat. Guk sortutako gailuak, konpostagailuaren tapa altxa beharrik gabe hondakinak botatzeko aukera ematen du. Kanpoko aldean duen biraderari eragindakoan



ARGAZKIA: E.IRAOLA

Ezkerrean Markel Azkargorta, Mendialdea Mankomunitateko zuzendaria eta eskuinean Joseba eta Diego, konpostagailuentzako tapa bereziaren egileak.

barruan duen konportak bira eman eta hondakinak bota beharreko tartea irekitzen da, barrukoari ateratzen utzi gabe. Gainera, eskuila bat ere badu barrenean eta biraderari eragindakoan bakarrik garbitzen da.

Eta nola neurtuko duzue erabilera?

Orain arte ez zegoen konpostagailura egindako ekarpen kopurua neurtzeko sistema zehatzik. Konposta egiten dutenen zerrenda dute administratzaileek baina ezin da kilotan neurtu, zenbateraino erabiltzen den jakin... Horrek konpostajeak izan duen harrera eta arrakasta

MANKOMUNITATEAREN BABESA

«Orain arteko neurketak intuitiboak izan dira. Izen ematea altua da, biztanleriaren %30 inguru, baina ez genekien partehartzea ongi neurtzen. Horregatik, interesgarria iruditu zitzaigun oso proiektua. Erabiltzaileentzako mesedegarria izateaz gain, kudeaketarako ere lagungarria baita».

Markel AZKARGORTA
Mendialdea Mankomunitateko lehendakaria

maila neurtzea zailtzen zuen. Aukera desberdinak aztertu ondoren, sistema baliagarri eta ekonomikoa kontagailu bat jartzea zela ikusi genuen. Erabiltzaileek biraderari eragiten dioten bakoitzean zenbatu egiten du kontagailuak. Kontuan izan behar da konpostagailura hondakinak botatzen ditugun bakoitzean, biraderari bialdiz eragiten diogula, lehenbiziko hondakinak botatzeko eta gero materia lehorra botatzeko. Biraderari eragindako aldiak eta gastatu den materia lehor kopurua neurtuta, erabileraren estimazio zehatzago bat lor dezakegu.

Lehenbiziko prototipoarekin ari zarete lanean. Gero zer?

Zirriborroa egin, diseinua garatu eta material desberdinekin probak egin ondoren, prototipo osatu dugu. Etxean lehenbiziko probak egin genituen eta gero, Leitzaiko auzo-konposta gunean jarri genuen baldintza errealean nola funtzionatzen duen ikusteko. Mendialdea Mankomunitateak gure proiektua babestu eta aukera hori ematea ezinbestekoa izan da. Era berean, 3d3 enpresarekin elkarlanean ari gara material desberdinak probatu eta gailuen zenbait hobekuntza egiteko. Pixkanaka proiektua fintzen ari gara. Erabiltzaileen bermea behar dugu orain.

Zein da helburua?

Ez da irabazi komertzialen bila abiatutako proiektu bat izan. Hondakinak kudeatzeko modu jasangarriak badaudela sinisten dugu eta mota honetako inizatibak orokortu behar direla. Jendeak konposta egiteko modu bat bilatu behar dugu. Ohiturak aldatzen joan eta gauzak ongi eta zentzuz egitea da kontua; gaur egun dauzkagun kontsumo eta bizi-ohiturekin ezin baita luzaroan segi. Erritmoak moteldu behar dira. Hondakinak ahalik eta gehien murriztu eta birziklatuz.

2011-2016 → NAFARROAKO GOBERNUAK ETA EUSKO JAURLARITZAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN BILAKAERA

Urtetik urtera laguntza murrizagoak Nafarroako euskarazko hedabideentzat

Lau urtez (2012-2015) Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarik gabe egon ondotik, 2016an berreskuratu dira. Berri pozgarria dirudi, baina egoera makurragoan gelditu dira, ia den-denek diru kopuru tikiagoa jaso dutelako. Gainera, 24 urtez Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzarik ere ez dute izanen, guttienez ondoko hiru urteetan.

Historikoki, Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuak berak baino diru gehiago inbertitu du Nafarroako euskarazko hedabideetan. Hemendik aitzinera ordea, **Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuarekin horrela adostuta**, ez ditu herrialde honetako euskarazko hedabideak diruz lagunduko.

J. IRIGOIEN

Batek baino gehiagok pentsatuko zuen Nafarroako euskarazko hedabideen egoerak hobera egiten zuela garai berriekin. Bada, ez da hala izan. Salbuespenak salbuespen, diru-laguntzei dagokionez, 2016a izanen da inoizko urterik txarrena. Ondoko orrialdean dagoen taulan ageri da hedabide bakoitzak Nafarroako Gobernutik (NG) eta Eusko Jaurlaritzatik (EJ) hartu dituen laguntzen bilakaera.

2011 izan zen UPNren gobernuak laguntzak banatu zituen azkeneko urtea. Hala ere, hedabide nafarrek bazuten Eusko Jaurlaritzaren laguntza, eta hari esker biziraun dute urteotan. Aurten, bi administrazioak elkar hartuta, 'ardurak' banatzea adostu dute, eta kaltetuak... Nafarroako euskarazko komunikabideak.

-50.105 €

2011ko datuekin konparatuz, 50.105 € gutiago jasoko dute aurten udalez gaindiko administrazioetatik Nafarroako euskarazko 12 hedabidek

Nafarroako komunikabideek ez dute aurrerantzean Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik hartuko, **24 urtez jaso ondotik**

Eskasiara behartuak

Nafarroako Gobernuak 2016an euskarazko hedabideei emanen dien laguntza tikiiegia da, are gehiago euskararen normalizazioan Nafarroa dagoen etapa kontuan izanda.

10 hilabete, ez urtea

2016ko azaro eta abenduko gastuak ez ditu diruz lagunduko Nafarroako Gobernuak.

2011 bitarte, Euskarabideak urte osorako laguntza deialdiak egiten zituen.

Burokrazia

diru-laguntzen kitapenak egiterakoan burokrazia izugarri nekosoak du Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren administrazio izapideekin konparatuz. Burokrazia arintzea nahitaezkoa da XXI. mendeko administrazioan.

2011n ez bezala,

aurten, egoitza fiskala Nafarroatik kanpo duten hainbat hedabidek hartuko dute laguntza Nafarroako Gobernutik eta baita Eusko Jaurlaritzaren edota Gipuzkoako Foru Aldunditik ere. 2011 bitarte, egoitza fiskala Nafarroan izatea nahitaezkoa zen.



NAFARROAKO IDATZIKO PRENTSA, IRRATI ETA ON LINE HEDABIDEETARAKO DIRU LAGUNTZAK

- 2012-2015 epealdian Nafarroako Gobernuaren laguntzarik gabe egon ondotik, aurten berreskuratu dira
- 24 urtez Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzarik ez dute izanen aurrerantzean Nafarroako hedabideek
- Diru laguntzek, oraingo kopuruetan, ez dituzte Nafarroako euskarazko hedabideen premiak betetzen

EGUNKARIAK

HEDABIDEA	2011 (EJ)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2011-2016
Diario de Noticias	0	0	20.000	+20.000
Berria	1.603.748	1.292.150	20.000	(1)

TOKIKO ALDIZKARIAK (euskara hutsezkoak)

HEDABIDEA	2011 (NG/EJ)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2011-2016
Axular	7.505	0	2.708	-4.797
Guaixe	54.724	53.510	23.649	-31.075
Naf. Hitza	0	5.009	3.761	-1.248
Kotarro	0	0	758	+758
Bipuntuzero	0	0	2.871	+2.871
Gaur 8	135.619	134.000	3.121	(1)
Mailope	17.976	8.143	9.779	-8.197
Pulunpe	20.966	17.600	9.868	-11.098
Ttapi-Ttapa	63.664	57.000	56.838	-6.826
Gazteberri	20.302	11.152	6.648	(1)

TOKIKO ALDIZKARIAK (zatiren bat euskaraz dutenak)

HEDABIDEA	2011 (NG/EJ)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2011-2016
Mendixut	8.684	0	6.250	-2.434
Merindad Tafalla	1.414	0	5.000	+3.586
Periódico Universitario	3.085	8.815	8.750	(1)

IRRATI KOMERTZIALAK (euskara hutsezkoak)

HEDABIDEA	2011 (NG/EJ)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2011-2016
Xorroxin Irratia	76.023	29.985	24.864	-51.158
Euskalerrria Irratia (3)	0	0	33.905	+33.905

UDAL IRRATIAK (euskara hutsezkoak)

HEDABIDEA	2011 (NG)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2011-2016
Karrape Irratia	11.257	0	10.946	-311
Esan erran Irratia	11.257	0	7.300	-3.957
Aralar Irratia	11.257	0	11.685	+428
Beleixe Irratia	13.759	0	6.300	-7.459

ON-LINE HEDABIDEAK (euskara hutsezkoak eta elebidunak)

HEDABIDEA	2011 (EJ)	2015 (EJ)	2016 (NG)	2015-2016
Guaixe.eus	2.467	8.182	2.110	-6.072
Erran.eus (2)	5.310	9.913	2.197	-7.716
Ahotsa.info (3)	0	0	2.939	+2.939
Info7.eus (3)	0	0	2.145	(3)
Gaur8.info	31.453	14.491	1.847	(1)
Ametza.eus	0	2.850	1.763	+1.087
Euskalerrriarratia.eus	24.540	21.564	2.000	-19.564

OHARRAK:

(1) Nafarroako Gobernuaren laguntzaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz ere hartuko dituzte hedabide hauek. Jaurlaritzaren deialdia (datozen 3 urteetarako izanen dena) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena oraindik itxi gabe daudenez, oraingoz ez dago jakiterik laguntzetan jasoko duten kopuru osoa.

(2) ERRAN.EUS 2015ean sortu zen. 2011ko zutabeen TTIPI.NET webguneari Eusko Jaurlaritzak emandako laguntza ageri da.

(3) 2016an eskatu/jaso dute laguntza lehen aldiz. INFO7.EUS webguneak Lapurdin du egoitza fiskala.

Deialdiaren alde ilunak

UPNren gobernuak 2011n eman zituen azkeneko aldiz euskarazko hedabideentzat diru-laguntzak. Aurten, aldatetaren gobernuaren eskutik berreskuratu egin dira, baina **laguntzen zakua eskasa da arras** (290.000 euro 28 hedabideren artean banatuak) **eta erabili dituzten irizpideak ez daude batere argi.**

Multzoak banan banan kontuan hartuta...

EGUNKARIAK

euskara hutsezkoak eta zatiren batean euskara erabiltzen duenak, bakoitzak euskararen sustapenerako egiten duen ahalegin maila desberdina izan arren, biek **kopuru berdina jasoko dute.** Zenbateko finkoa zuten eta alde zuretik jakina.

TOKIKO ALDIZKARIAK

erabili dituzten irizpideak ez daude batere argi. Izan ere, Euskal Herri osoan banatzen diren **Gaur8, Gazteberri eta Periódico Universitario, Tokiko Aldizkariak dira benetan?**

IRRATIAK:

2016an irratiei eskatzen zaien **produktio minimoa 2011ko maximoa baino handiagoa da.** Bertzalde, ez dago argi entzule 'potentzialak' zeintzuk diren. Deialdi osoan, ez dirudi **entzule errealak objektiboki eta datu-iturri adostuetan** oinarrituz kontuan hartu direnik.

INTERNET:

Zaku berean daude izaera desberdina duten hedabideak: euskarazkoak eta elebidunak, informazio orokorrekoak eta bereziki herri mugimenduen informazioa dutenak, edota Euskal Herri osorako direnak eta Nafarroako tokiko informazioa eskaintzera emanak direnak. **Ebazpena ikusita, ez dago argi zenbateraino hartu den kontuan Nafarroako berariazko edukari dagokion puntuazio atala.** Eta irismena, zertan oinarrituta neurtu dute?



Nire txanda
Zuriñe ZUBILLAGA

Identitatea

Udako arratsean ilargiari so ohartu zen ilargia betikoa zela. Harengan ez direla urteak pasatzen. Eta oroitzapenen itsaso hartan murgildurik, galdetu zion bere buruari ea bera betiko hura zen. Identitateari buruz hitz egiten entzun zion aurrekoan lagun bati: ez dakit nork ez omen zuela identitatearik. Alajaina! Identitatea. Kontzeptu bitxia. Ba al zuen berak identitatearik? Nor zen ilargiari so zegoen emakume hura? Harriturik zegoen bizitzak berak bere "identitate" plastiko horrengan sortarazi zuen eraginaz. Harritua egoe-rak, garaiak eta norberak ditxosozko "identitatea" astintzeko zuen gaitasunaz. Ez, ez zen emakume bera. Eta seguruenik ez zen ondorengo urteetan bilakatuko zen emakume hura ere izango. Ez behintzat osotasunean. Beharbada esentzia batek iraungo zuen arren. Higitutako harriak bezala aldatuko zen formaz, harri izaten jarraitu arren. Pentsatu zuen ere zorionekoa dela identitateaz hain argi duen hori. Baina ez al da erabateko ziurtasuna udako arratseko gau batean kokatzen den ipuina bezain sinesgaitza?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Udako lekuri bisitatuena

Ez mendi eta ez itsaso. Ez aintzira eta ez erreka. Kremailerazko trenak, lezeek, landetxeek, bide berdeek, monumentuek edo museoek baino aunitzez bisitari gehiago izan dituzte. Edozein ostatu txokotan, bulego ataritan edo komun bazterretan doaneko sarbidea duten wifi eremuak izan dira udako lekuri bisitatuena. Hori da hori mobil, tablet eta ordenagailu xaltxa!!!

Nabarmentzekoak



Joxe Mari IXTILART
Uharte-Arakilen nagusi

Nafarroako Artzain Txakur Txapelketan, lehenbiziko aldiz lortu du garaipena amaiurtarrak, *Lagun* txakurrarekin. Gainera, bigarren postua ere beretzat izan da *Bizkor* txakurrarekin.



Maria Jesus LARRETxea
Etxexipiako gaztak saria

Great taste awards Nazioarteko sukaldaritzako lehiaketan saria eskuratu du Maria Jesus Larretxea baztandarrek. 10.000 jakiren artean aukeratua izan da Etxexipiako ardi-gasna.



Gaizka SARASOLA
Antzerkigile lesakarra

Aktore eta musikari lesakarrak idatzitako hiru antzezlan (*Urak tiki dire*, *Lur azpikoak* eta *Talaka*) biltzen dituen *Erleak*, *satorrak*, *beleak* liburua argitaratu du Edo argitaletxeak.

Atzera begira → 2006-IX-21 / TTIPI-TTAPA 430 zk.



«Lesaka: Harria, burdina eta zura» erakusketa herriz herri

Duela hamar urte, irailean ikusgai izan zen *Lesaka: harria, burdina eta zura* erakusketa Lesakan bertan. Gero, herriz herri ibili zen 70 argazki biltzen zituena bilduma. Erakusketaren ideia eta testuak Carmen Ruiz de Garibay lesakarrarenak ziren eta argazkiak Giuliano Mezzacasa italiarrarenak. Carmen Ruiz de Garibay-en erranetan, «Lesakako txokoak, etxeak eta karririk begirada garbi batekin, haurren begirada batekin ikusteko gonbidapena da erakusketa hau. Haurrek xehetasunak ikusten dituzte, ez gauza orokorrak. Kanpoko baten eta lesakar baten begiradak uztartu ditugu eta ongi hartu dugu elkar».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larrale, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Gure planeta

Pello APEZETXEA

Eguzkiaren inguruan hainbat planeta dabilta. Horietako bat da Lurra deitzen diogun gure bizilekua. Oraingoz dakigunez, bizia bakarrik gure planetan da, horretarako beharrezko baldintzak soilik hemen gertatzen direlako. Ura eta eguzkiaren argia dira horietako batzuk. Argia eta ura ikusten eta sumatzen ditugu lurarroko, beraiez baliatu eta gozatzen dugu. Baina ez gara hainen aisa oharitzen horien beharraz. Ez dakigu, edo ez gara oroitzen, bai argia, bai ura hondatzen ahal direla eta galtzen. Eta, batez ere, guk hondatzen edo galazten ahal ditugula.

Begira bertzela: saiatzen gara egunero gastatzen dugun ura neurtzen? gure hurbilean diren errekek garbiak mantentzen?

Bizitzeko energia iturri handienetakoa petrolio da gaur egun. Eskuratzeko, itsasoak eta lurrak zulatzen dira, eta, erabiltzean, atmosfera edo gainaldeko airea inolako beldurrik gabe pozoitzen dugu.

Neguko argi eta tenperatura apalak eguzkiari zeharka begiratzeak eragiten ditu, eta udako argi eta berotze biziak orduan gain-gainean dugun astro argitzaile eta berotzaile beraren ondorio dira.

Eguzkia jotzen da gure planetaren bizi emaile. Horren argi eta berorik gabe, ezinezko bailitzateke bizia sortu eta mantendu lurrean. Gure gainaldea garbi zaintzen ez badugu, ordea, eguzkiaren argia kaltegarri ere bihurtu daiteke. Eta hori gertatzen ari dela diote: gure lurrraren gehiengo estaltzen duen itsasoko ura gero eta gehiago berotzen ari dela, ipar eta hegoaldeko hormak urtzen, hainbat arnagarri eta janari eskaintzen digun lurrraren eremu handiak basamortu bilakatzen.

Gure bizileku ttikiak, etxebizitzak alegia, negurako berotasunez, jatekoa prestatzeko suz, euri eta hotzerako estalkiz, garbitasun eta edariketarako urez hornitzen ditugu, ahal den neurrian. Gure bizileku handia, berriz, gure planeta edo lurra aski balioztatzen ez dugula, eta behar bezala zaintzeak merezi ez ote duen uste dugu? Hainbat gauzak, eta munduaz noski, inoiz baino gehiago baldin badakigu, zer gertatzen da gure planetarekin horrela jokatzeko?

«**Saiatzen gara egunero gastatzen dugun ura neurtzen? gure hurbilean diren errekek garbiak mantentzen?**»

«**Hainbat gauzak, eta munduaz noski, inoiz baino gehiago baldin badakigu, zer gertatzen da gure planetarekin horrela jokatzeko?**»

Agur, Rio

Luis GARDE

Uda joana, irail betean sartuta, kirolarekin zirikusirik duten berri gehienek futbolaren inguruan doaz. Are gehiago aurtengo lehen mailako ligan ez dakit zenbat euskal talde dagoenean. Baina duela hilabete eskas bat kirola erratea Olinpiadak erratea zen. Edo, hobeki errateko, Joko Olinpikoak, hedabideek modan jarri den esamolde pedantea erabiltzeagatik. Nire aldetik, gure urruneko umezaroan Joko Olinpikoak Olinpiada xumeak ziren (München 72 jartzen zuen nire kirol-boltsan), eta, barkatuko didazue, horrela segituko dut.

Maiz kirolarekin lotutako berriak sasi-euforiako bilgarri batean apainduak ailegatzen zaizkigu. Baina goxokia ez da beti horren gozoa. Rioko Olinpiadetan ikusi duguna ez dira bakarrik dominak, markak edota kirolarien egitandiak, kazetarien espainar nazionalismoaren adierazpen nazkagarriak ez aipatzeagatik, espainiarren batek domina lortzen zuen bakoitzean. Ohituta gaude, noski. Hortik kanpo, gauza arraroak ikusi ditugu: kolore berde zikin hartzen zuten igerilekuetako urak, ustez atrako bat jasaten zuten kirolari parrandazaleak, benetako lapurretak, podiumetako sailkapenak aldatzen dituzten dopin kasuak, logistika eta antolakuntzako nahasketak handiak, negozio zikinak eta ustelkeria. Brasileko egoera ekonomiko eta soziala ez omen da desira zitekeen onena, eta Olinpiadek ez dira arazo horiek sendatzeko botika magikoa.

Katalan batzuek diotenez, oraindik nabarmena da Bartzelona 92ko arrasto txarra, hirigintzari dago-kionez. Felipismoaren garaietan saldu ziguten goxokiak zeukan onena, berriz, bilgarri polita zen. Batzuentzako bai, negozio biribila. Hainbat saio erri-dikuluren ondoren, Madrileko gobernuak uko egin zion olinpiada batzuk Madrilen antolatzeari. Penatuta, buruak erraten baitie krisi bat gainditzeko metodorik onena azoka bat muntatzea dela, nahiz eta sarri kontrakoa gertatu, jokuak jasaten dituzten hiriak lehen baino txarrago geratzen baitira: zorra handiak, eraikuntza erabilezinak...

Gero eta luzeagoa da Olinpiadak antolatzea errefusatzen dituzten hirien zerrenda: Estokolmo, Oslo, Hanburgo, Krakovia, Boston, Toronto... Eta onena da uko egite hori lekuan lekuko herritarren preioagatik egiten dela, kontsulta demokratiko bat tartean. Auzo hauetan ez, ordea. Ikusiko dugu, goiz, Madrileko gobernu bat hurrengo egitasmo "ilusionagarria", ustela, aurkezten.

«**Penatuta, buruak erraten baitie krisia gainditzeko metodorik onena azoka bat muntatzea dela, nahiz eta sarri kontrakoa gertatu**»

Irakurleak mintzo

Eskerrak Arantzako herri eskolari

Juanita LARRALDE (Arantza)

Bizirik dagoen herri bat da Arantza, eta bizirik dagoen herri bateko eskola izan da nire lantoki urte luzez. Eskola ttikia, herriari ematen dion bizia, euskara eta gure kultura ernatu eta hazitzen lagundu dion lekua izan da. Gure solasekin jostetan, ikusiz ikasi, adituz enteinttu, pentsatuz sortu, hasertzen eta mattatzen ikasi dugun familia ttiki bat izan da niretzat Arantzako eskola. Lan ixila da urteetan egin duguna, egunak joan ta egunak etorri, eskolako pareta zaharretatik barrenera nahiz kanpora begira, urteak hegaka joan zaizkit, zainak ongi itxekiak daukela konturatzen naiz golpean.

Arantzán, irakaskuntzan 41 urte pasatu eta 60 urte bete ondotik erretiratu berri naiz. Urte luzeotan hameka bizipen eta momento berexi pasatu ondotik, guttiena espero nuen, jaso ditudan agurrak gogora ekarri eta eskertu nahiko nituzke Ttipi-Ttapa aldizkariaren bitartez.

Ekainaren 9an, eskolan: irakasle, ikasle eta seme-alaben agurra. Bertsoak, lore sorta, zapela, argazkien bilduma, irakasle eta ikasleen muxuak, nire familiaren aportazioak, herriko zortzikua, dantzak.... Emozioz betetako momentu atzendu ezinak, urduritasuna, negar, harridura, poza,... sentsazio guztiak nahaspilan.

Ekainaren 29an, Aterpen, Bortziritako irakasle ohi eta oraindik lanean daudenekin bazkari eta kafe goxoa. Zenbat oroitzen, zenbat bilera elkarrekin, kanpaldi, ikastaro, topaketa, zenbat istorio, atzo hasi ginela diruri.

Abuztuaren 14an, lasai ederrean Arantzako bestetan plazan, bertso saioa aditzen ari nintzela, oholtza gainera igotzeko erran zidaten. Nire yogako irakaslearen aholkuak jarraituz, arnasa hartu nuen lasai, baina nire burua alde ba-

tera eta gorputza bertzera zuten. Lizasoren bertsoa, Rosaren hitz hunkigarriak. Lehenbiziko nire ikasle izaniko eta aurten azkeneko ikasle izan ditudan emaniko opari eta muxuak, Guraso Elkarteko lore sorta, bertsolarien bertso goxoak, aitzinean ikusten nuen jendearen emozioa. Zorionak eta muxuak....

Aipatutako hiru momentuak arrunt berexiak izan dire niretzat, emozioak saltoka, negar malkoak begietan, pozez beteta,... egia errattekoezin sinetsi batean.

Egun batzuk pasatu eta emozioak bere lekura joan direnean, konturatu naiz zeinen ederra izan den hainbertze bete eta irautsi didan lanak eman duen fruitua. Bihotza beraxtua, emozioz beterik oroituko ditudan Arantzako eskolan ibilitako urteak, zuei eskerrak!

Mila esker lankide eta ikasleei.

Mila esker Aterpeko bazkarian hainen goxo elkarrekin egon ginen irakasle guztiei.

Mila esker Arantzako Guraso Elkarteari.

Mila esker ikasle ohiei.

Mila esker Arantzako Udalari.

Mila esker nire familiari.

Mila esker arantzatar guztiei.

Eskerrak aunitz Arantzako Herri Eskolari!

Sanmartzialak eta errelatoaren garrantzia

Joseba DOMINGUEZ
(Euskal errepresialatu politikoa)

Ohikoa da garaileek historia idaztea, errelato bat ezarri eta beraien nahi inperialistak zilegi bihurtzen dituzte horrela, garaituenak ahaztuta utziz. Errelato ofizialak hainbesteko indarra du ezen, euskaldun askok etsaien errelatoari sinesgarritasun osoa ematen dioten. Batzuetan hori nahiko etsigarria da. Adibidez, joan den uztailaren 1eko Garako Uda-

beteko sekzioan Irungo Sanmartzialei buruzko erreportaje batean Idoia Zabaletak sinatuta hala zioen: *Irungo alardean irundarrak frantziarren aurka 1522ko ekainaren 30ean Aldabe mendian lortutako garaipena ospatzen da. Frantziarrek bataila horrekin zuten helburua Bidasoaren muga kontrolatzea zen.* (...)

Esan beharra dago garaituok jakin dugula gure errelatoa idazten, lan asko eta bikainak daude. Hauen artean gomendagarriak dira: Tomas Urzainkiren *La navarra marítima*, Mikel Sorarueneen *La historia de Navarra el estado vasco* eta bertze batzuen artean osatuena, Pedro Esarte 1512-1530, *Navarra ocupación y sometimiento civil, militar y eclesiástico*. Lan honetan esaten denez, San Martzial mendian gertatutako borroka ez zen gauza bakuna izan; nafarrek 1512an galdutako independentzia berreskuratzeko egingo azken saioen barruan kokatu behar da. Helburu hori lortzeko hiru saio egin ziren; lehena 1512an galdutako independentziatik hiru hilabetera, bigarrena 1516an eta hirugarrena eta azkena, 1521ean. Azken honek, 1524ra arte iraun zuen, Hondarribiko gazteluan zeuden nafarrak garaitu arte. Hots, hiruetan porrot egin zuten.

Saio garrantzitsuena 1521 urtekoa izan zen, Noaingo bataila. Bataila hura galdu ondoren, Esartek dionez Amaiurko gaztelua berreskuratzeko babes estraterjikorako korridore bat Bidasoa ibaiaren aldamen-dean zabaldu nahi zuten nafar gaskoiek, Amaiurtik Hondarribiaraino. Korridore horren bidez, Erresuma berreskuratzeko beharrezko babesak Bidasoaren bertze aldetik jaso ahal izatea zen euren asmoa.

Baina, Espainiako armadaren kontra izandako ahultasun militarra dela eta, nafar gasoiek Donezteben espainiarren aurka izandako borroka baten ondotik korridore hori moztuta gelditu zen. Handik gutxira nafar soldaduak Behobiako

(Pausu) gaztelua okupatu zuten baina espainiarren kontraerasoaren ondorioz, nafar lapurdiko (ez frantsesak), zehaztu Urtubia eta Senpereko etxeek ekarritako soldaduak naparren laguntzan Aldabe mendian 1521eko ekainaren 30ean espainiarren aurka zabaldu zuten borroka eta Espainiako garaipen horretan kokatzen dira Irungo jaiak. (...)

Errelatuak duen garrantzia ezin dugu ahaztu, esaterako ezker abertzaleak aldaketa estraterjikoaren ondoren eta konfrontazioa esparru politikoan kokatzerakoan, estatua- ren deserosotasuna eta dituzten gabezi demokratikoak agerian geratu dira. Baita zailtasunak ere gero eta gehiago duten politikari zilegitasun bat emateko. Horregatik, Barcelona, Rubalcaba eta Fernandez Diaz ere tematuta daude garaileen eta garaituen arteko errelatoan. Ezker abertzaleari errelato politikoaren aldeko bataila irabazi eta 50 urte haue- tako independentziaren alde egiten ari garen borrokari zilegitasuna kentzek modua da; gure herriaren aurka zabaldu- tako errepresioa eta ukapen demokratikoak zilegi bihurtze- ko.

J.M. Garatek artikulu batean dio Estatu uniformatzaileek menperatutako herriaren oroimena ezabatzea bilatzen dutela. Garaileek eraikitakoe- kin ordezkatu eta euren errelatoa ezartzeko, gezurren bidez. Borroka horrek behartzen gaitu gure historiaren aldeko borrokan zorrotzak izatera eta horrela iruzurrari aurre egite- ko; ez badugu beraien errela- topean desegin nahi.

Zuzenketa

669.alean argitaratu genuen *Bertsolaritzaren transmisioa* izeneko gutunaren egilea gaizki idatzi genuen. Zigako gazte- ak ageri dira egile bezala, baina Leitzako Flory Mitxelenak bidalitako idatzia zen. Barka- menak bie.

Prentsatik bildutakoak



«Esperimentazioarena ez da hainbertze asmo bat, baizik eta pieza bakoitzak, egoera bakoitzak edo pertsonaiek eskatzen dizuten bideari jarraitzea».

«Idazten dudalarik, aktore ere banaiz; ez dut eserita idazten. Ez dut testuan soilik pentsatzen. Pentsatzen dut ekintza dramatikoaren momentuan. Eszenan pentsatzen dut».

Gaizka SARASOLA
Lesakako antzerkigilea
BERRIA 2016.08.26



«Amaiurko estudioan nire gogoko bi gauzak egiten ditut: margotu eta lagunekin otorduak. Etorkizunean ongi ikusiko nuke etxe-museo bat egitea. Gustatuko litzaidake nere obra Amaiurren ikustea. Interesgarria litzateke Nafarroako Gobernuak proiektu hau babestea. Hemen bilduak geldituko lirateke nere lanak, baita nire sentimentuak ere».

Ana Mari MARIN
Baztango margolaria
D.NAVARRA 2016.09.06

11 galdera labur

Urrozko txokorik gustukoena?

Urroz herri ttikia da, baina polita, eta bat aukeratzekotan urtegiak. **1950ean Urrozek 300 biztanletik goiti zituen eta orain 180ren bueltan...**

Garai batean jendea lana zegoen tokira joan zen, Doneztebera aunitz. Orain ere hemen ez dago lanik, baina gazteak etxeak egiten hasi dira eta haurrak ere badira. Pixka bat igotzen ari da.

Haurra zinenetik herria aunitz aldatu da?

Bai. Lehen, herriko bazterretan dena lohia zen, eta orain denean losa paratua da. Lehen frontoirik ere ez genuen, hor eskola zegoen.



Maixux ALDABE → Urrozterra

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Paseoa egitea.

Baratzeko lana ala etxe barrenekoa duzu nahiago?

Baratzekoa. Baina etxean ere egin behar denez, gustura aritzen naiz.

Kantari ere aritzen zara...

Bai, pixka bat. Lehen gehiago aritzen ginen, elizan, apezarekin.

Xorroxinen Urrozko berriemaile. Zein berri emanen zenuke gustura?

Berri onak, behinik behin. Berriak badirelik gustura ematen ditut.

Urrozko bestetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Herriko bazkaria eta San Miguel eguna. Herriko bazkarira bikote batzuk joaten gara eta San Miguel eguna ere gustura pasatzen dut.

Bestak lehendik orainera aunitz aldatu dira?

Lehen gauza guttiago izaten ziren, baina disfrutatzen genuen.

Zein toki bisitatuko zenuke gustura?

Kanarietara joatea gustatuko litzaidake. Orain dela 39 urte izandu ginen eta gustura joanen nintzateke berri.

Asteburuetan zer egitea gustatzen zaizu?

Egunero egiten duguna.

sarobe
gozotegia okindegia

p^o de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak
T. (0034) 636 617 450

BAR **Botxo** OSTATUA

Zalain • BERA • 948 630 052

BERA **KATEA BIKE**

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak ...

Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net

ORBEA MERIDA SCOTT BH

EDARI AK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

zalain

HEZKUNTZA

IKASTURTE HASIERA → IKASTETXEETAKO DATUAK

Eskualdeko 5.516 ikaslek hasi dute ikasturtea

TTIPI-TTAPA

laz baino 91 ikasle gehiagok eman diote hasiera ikasturteari Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka eta Xareta. Aurten go berrikuntza nagusia Lekarozko eskolaren irekiera izan da. 1983an itxi ondotik, berriz ireki baitute Haur Hezkuntzako sei ikaslerekin.

Gainerakoan, Ipar Euskal Herrian, «terrorismoaren mehatxua» dela eta, Frantziako Gobernuak segurtasuna bermatzeko hartutako neurrien artean hasi dute ikasturtea. Hegoaldean, berriz, LOMCeren inguruko zalantzeekin hasi dira. Oraindik ez baitago deus ere argitua.

BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

	BIGARREN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	26	0	299
Lekaroz ⁽²⁾	26		299

BORTZIRIAK			
Arantza IP	16	35	274
Bera (Toki Ona) ⁽²⁾	16	35	220
Bera (Labiaga Ikastola)			44

LEITZALDEA			
Goizueta	0	0	186
Leitza (Amazabal)			11
			175

MALERREKA			
Doneztebe (Mendaur)	0	0	206
			206

XARETA			
Senpere (Arretxea)	133	102	7
Urdazubi-Zugarramurdi			7

GUZTIRA	175	137	972
----------------	------------	------------	------------

2016-2017 Guztira: 1.284	↑
2015-2016 Guztira: 1.254	% 2,33

⁽²⁾ Behin behineko datuak dira.

BATXILERGOA

	BATXILERGOA		
	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	155
Lekaroz ⁽²⁾			155

BORTZIRIAK			
Bera (Toki Ona) ⁽²⁾	0	0	107
			107

LEITZALDEA			
Leitza (Amazabal)	0	0	66
			66

GUZTIRA	0	0	328
----------------	----------	----------	------------

2016-2017 Guztira: 328	↑
2015-2016 Guztira: 260	% 20,73

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

2015/2016

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	203	8	0	508
Almandoz IP			0			5
Amaiur IP			8			23
Arizkun IP			10			27
Arraioz IP			6			16
Azpilkueta IP			7			0
Baztan Ikastola			63			146
Elizondo IP			65	8		167
Erratzu IP			12			24
Gartzain IP			4			9
Irurita IP			15			50
Lekaroz IP			6			0
Ornoz IP			4			28
Ziga IP			3			13

BERTIZARANA						
Legasa IP	0	0	24	0	0	31
			15			15
Narbarte IP			9			16

BORTZIRIAK						
Arantza IP	11	15	291	18	39	513
Bera (Ricardo Baroja)			74			131
Bera (Labiaga Ikastola)			46			104
Bera (Jesusen Bihotza)	11	15		18	39	
Etxalar IP			28			55
Igantzi IP			20			36
Lesaka (Irain IP)			57 ⁽¹⁾			77
Lesaka (Tantirumairu)			41 ⁽¹⁾			72

⁽¹⁾ 2 urtekoak barne

LEITZALDEA						
Areso IP	0	0	132	0	0	251
			7			17
Goizueta IP			20			44
Leitza IP (Erleta)			105			190

MALERREKA						
Beintza-Labaien IP	0	0	143	11	5	327
			2			5
Doneztebe (S. Migel)			85	11	5	216
Ituren IP			26			41
Saldias IP			5			2
Sunbilla IP			25			63

XARETA						
Sara (Publikoa)	84	157	108	220	228	158
	1	9		4	20	
Sara (St. Joseph)		39		17	59	
Sara (Olhain Ikastola)			50			73
Senpere (Publikoa)	39	65		93	94	
Senpere (Amotz publ.)	28			50		
Senpere (Zaldubi ikas.)			41			55
Senpere (St. Joseph)	16	44		56	55	
Urdazubi-Zugarramurdi			17			30

* Lehen Hezkuntzako datuak 6-11 urte artekoak dira Sara eta Senperen.

GUZTIRA	95	172	901	249	272	1.788
----------------	-----------	------------	------------	------------	------------	--------------

HEZIKETA ZIKLOAK

	HEZIKETA ZIKLOAK					
	LHB	OLH	Erdi M.	G. M. S.	Goi M.	
BAZTAN	2	27	43	4	67	
Elizondo ⁽²⁾	2	0	18	9	38	5
Lekaroz ⁽²⁾					3	1
					19	9
						39
BORTZIRIAK	0	38	0	33		
Bera (Toki Ona) ⁽²⁾			38			33
XARETA	0	0	0	213		
Senpere (Laborantza)						213

GUZTIRA	2	27	81	4	313
----------------	----------	-----------	-----------	----------	------------

2016-2017 Guztira: 427	↑
2015-2016 Guztira: 398	% 6,79

HAUR HEZKUNTZA

2016-2017: 1.168	↓
2015-2016: 1.226	- % 4,97

LEHEN HEZKUNTZA

2016-2017: 2.309	↑
2015-2016: 2.287	% 0,95

HIZKUNTZA EREDUAK

A eredua	Erdara hutsean
B eredua	Mistoa
D eredua	Euskara hutsean

Juankar UNANUA | Igantziko alkatea

«Udalaren eta herritarren arteko distantzia murriztea gustatuko litzaiguke»

Alkate karguan, sanmigela hauek lehenbizikoak izanen dira Juankar Unanuaren ztat. Joan den ekainean izendatu zuten kudeaketa batzordeko presidente, azken udal hauteskundeetara ez baitzen inor aurkeztu Igantzin. Hori gertatzeko arriskua «urrititik ikusten zela» dio: «lehenago bi zerranda arazorik gabe aurkeztu ziren, aitzinekoan talde bakarra osatzeko lanak izandu ziren eta azken hauteskundeetan ezta bakar bat ere. Progresioa izan da». Bere irudiko, «arazoa aztertu eta soluzioak bilatu behar ditugu», berak argi baitu «arazoa ez dela Udalarena bakarrik, herriarena da». Horretarako, «herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa hobetu behar dela» uste du, «oinarria hori da». Berak ere erronka hori du: «Udalaren eta herritarren arteko distantzia murriztea gustatuko litzaidake, elkar ulertu daitekeela ikustea, eta jendeak Udalean sartzeaz duen ideia aldatzea. Une latzak izanen ditugu, baina onak ere bai».



lan pila badela, eta jende gutti. Ea norbait hartzen ahal dugun lan hori pixka bat arintzeko. Gezurra dirudi horrelako herri tiki batean, hainbertze lan izatea. Ezin ailegatuz gabiltza».

BESTAK GUSTUKO

20.000 euro inguruko aurrekontua dute Igantziko bestak. Hala adierazi digu Unanua. Eta egitarauari dagokionean, «joan den urtekoan oinarritu» direla erran digu, «aurten astirik gabe ibili gara, presaka, eta iazkoa errepikatzen saiatu gara». Horretarako, herritarrekin batzorde bat sortu zuten lehenbiziko, eta Udalaren aldetik bi zinegotzi izendatu zituzten, «nahiz eta gero bileretara gehiago agertu».

Alkate bezala lehenbiziko bestak izateak «urduritasun eta kezka puntu bat» sortzen diola dioen arren, «lehen bezala, bestak

umore onean pasatzea» espero du. «Egun batzuk libre hartu eta disfrutatzea gustatzen zait». Eguerdiko giroa omen du maiteena, «aperitiboarena», dio: «plaza

inguruan elkartu eta aspalditik ikusi gabeko jendea agurtzeko aukera izaten da, lagunarteko solasaldiak berreskuratzeko aukera, nahiz eta egun gutti izan». Faltan direnak ere gogoan ditu, «batzuk ezin dutelako etorri eta bertze batzuk betiko joan zirelako».

Bide batez, «Ttipi-Ttapa» irakurle guztiei gonbitea ere bidali die: «giro ederrean pasako ditugun sanmigeletara etor zaitezte».

LANA ETA ALKATETZA

45 urteko igantziarra autonomoa da, eta onartu digunez, bere egunerokoa alkate lanarekin bateratzea da «nire kezkarik haundiena. Aunitzetan gehiago egin nahi izaten da, baina nire bizimodua ez da hau eta ezin da luzatu». Azaldu digu, kargua hartu aitzinetik «buruari buelta aunitz» eman zizkiola, «lehenbizian buruhauste aunitz izan nituen». Aldiz, kargua onartu duenetik, «ilusioz» omen dago, bera eta lantalde osoa. «Lantalde polita dugu. Bakoitzak bere zalantzak, beldurrak eta zailtasunak ditugu, baina gure onena emateko prest gaude. Ilusioarekin ikusten ditut eta hori garrantzitsua da». Denak berriak dira udal barrenean, eta «ahalik eta esfortzurik haundiena egiten ari gara, lehenbailehen asentatzeko». Gaineratu digunez, «lan aunitz jasotzen ari gara denboratik». Igantziko Udalaren egoera ona dela ere adierazi digu, eta ekonomikoki ere «Igantziren osasuna ona da. Soberan ez dago, baina faltan ere ez». Halere, aitortu digu «idazkaritzaren aldetik,

«Bestetatik eguerdiko giroa gustatzen zait gehien. Plaza inguruan elkartu eta aspalditik ikusi gabeko jendea agurtzeko aukera izaten da».

ONGI PASA BESTAK!

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

GORA SAN MIGELAK!

borzuzkud
INPRENTA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

BESTETARAKO PRESTATU

AINHOA
ESTETIKA

661 432 630

Estoganaga 4 behea · IGANTZI

10% deskontua
BESTAK DISFRUTATU

ONGI PASA BESTAK!

Mariluz
Despandegia zure etxean

Tel. 680 268 131
mariluz.telletxea@gmail.com
Berrizaun, 21 · IGANTZI

ONGI PASA BESTAK!

Ingurumen Zerbitzuak

ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- KARTOGRAFIA, PLANOAK ...
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Arburua

On egin janak eta kalterik ez edanak!

607 88 39 68 · mikel@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

Canon Bidasoa

- Multifunzioen konpontze eta salmenta.
- Ordenagailuen konpontze eta salmenta.
- Zerbitzu teknikoa. **Ongi pasa bestak!!**
- Kontsumibleak.

Santiago kalea 7, Irun info@cbc-bidasoa.es
943 631818

ONGI PASA
BESTAK!



TALOTXA

IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

EGITARAUA

IRAILAK 24, larunbata

09:00 Gosaria Ziobin. **10:00** Plater tiroketa Ziobin. **12:00** Patata tortilla lehiaketa frontoian (bertan egindako tortillek puntuazio altuagoa izanen dute etxetik ekarritakoek baino). **16:00** XXXVI. Artzain Zakur Lehiaketa. **20:00** Igantziko dantza taldearen emanaldia. **22:00** Bertso-txiste afaria Biltokin. Bertsolariak Iban Urdangarin eta Ander Lizarralde. Txiste kontalariak Marianiko el Korto eta Barragan.



IRAILAK 25, igandea

10:00 Karrika buelta herriko txistulariekin. **11:00** Haurren herri kirolak: herrien arteko konbinatuak eta morkots biltzea. **12:00** XIII. Gazta lehiaketa frontoian. **12:00** Ardo dastaketa frontoian. **18:30** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin, Trikipand trikitilari taldearekin batera. **19:00** Gazta eta opila dastaketa frontoian.



**Igantzi Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**

IRAILAK 28, asteazkena

17:30 Goitibehera erakustaldia Piedadetik abiatuta. **19:00** Trikipoteoa. **20:00** Altxaferua. **Ondotik** karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin Elutxa txarangak alaitua. **00:00-03:00** Elutxa txaranga herrian barrena.



IRAILAK 29, ortzeguna

10:00 Karrika buelta herriko ezpatadantzari eta txistulariekin. **11:30** Meza Nagusia herriko abesbatzak kantatua. **Ondotik** *Bandera Arbola* doinuari dagokion Ikurrin Agurra eta ezpatadantzarien eta dantzarien saioa Foruen plazan. **16:30** Haurrentzako jokoak eta tiropitxoia frontoian. **17:30** Dantza luzea Foruen plazan. **18:30** Pilota partidak. **20:30** Muxikoak Foruen plazan. **21:00** Txamukos mariatxi taldea.



IRAILAK 30, ortziralea

10:00 karrika buelta herriko txistulariekin. **10:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **11:00** Pintxo-potea Elutxa txarangak alaituta. **12:00** Migattuak zezen plazan Elutxa txarangak alaituta. **14:00** Hurren herri bazkaria zentroan. **14:00** Herri bazkaria Baratzondon Sustrai Colina eta Jon Maia bertsolariekin, Elutxa txarangak lagunduta. **15:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **20:00-22:00/00:00-03:00** Trikidantz taldea.



URRIAK 1, larunbata

10:00 karrika buelta gaiteroekin. **11:00** Haurrentzako animaliak zezen plazan. **12:30** Toka txapelketa frontoian. **12:30** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin gaiteroek lagunduta. **18:00** Herri kirolak. **20:00-21:00** Elektropatxaranga. **21:00-22:00** Oharkabe taldea. **22:00-00:00** Elektropatxaranga. **00:00-04:00** Oharkabe taldea.



URRIAK 2, igandea

11:00-13:00/16:00-18:00 Puzgarriak eta Segway frontoian. **18:00** Haurrentzako berendua frontoian.

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK



*Ongi pasa
Saunigelak!!*

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA



LA VILLA

Ostatua - Jatorrea - Igantzi

ERRESERBAK
T. 948 637 290

Ongi pasa bestak!

Karrika Nagusia, 14 31790 IGANTZI




ZUMARBEL

creaciones metálicas

Igantzi (Navarra)

948 63 74 11

ONGI PASA BESTAK



Lehen A.T.M. S.A

Berrizaun 25,

31790 IGANTZI

T. 948 63 74 11

@ info@zumarbel.es

www.zumarbel.es

BORTZIRIAK

KULTURA → IRAILEAN

Bidasoko Trenari buruzko erakusketa Beran eta Igantzin

Hilaren 13tik 20ra Beran eta 23tik 25era Igantzin

TTIPI-TTAPA

Lesakan abiatu eta Etxalar, Donamaria, Doneztebe eta Eratsungo geltokietan geldialdiak egin ondok, berriz ere Bortzirietara etorriko da Bidasoko Trenbidearen mendeurrenaren inguruan antolatu den erakusketa. Zehazki, Berako

Kultur Etxean irailaren 13tik 20ra dago ikusgai eta Igantzin besten aitzineko asteburuan, irailaren 23tik 25era egonen da ikusgai. Hemen-dik, Sunbillarako bidea hartukodu, irailaren 27tik urriaren 11ra.

Aunitz dira hilabetean erakusketa ikusi dutenak, bai bertakoak, baita kanpotik etorritako turistak ere. Argazkian, Bera eta Lesakako jubilotekakoak ageri dira, Harriondoa Kultur Etxean egin zuten bixitan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bera eta Lesakako jubilotekakoak Harriondoa.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Igantzik mendi bizikleta ibilaldia arrakastatsua

Igantzik Biltokik antolatutako mendi bizikleta ibilaldiaren 26. edizioa burutu zen irailaren 4an. 33 eta 23 kilometroko ibilbidea izan zuten aukeran txirrindulariek eta denera 62 bat txirrindulari atera ziren. Nahiz eta lasterketa ez izan, bizkorrren ibili zenak ordubete eta 54 bat minutu behar izan zituen berriz ere Igantzik plazara ailegatzeko. Plaza inguruan bertze 27 neska-mutiko ibili ziren mendi bizikletan.

IRAILAREN 30ERA ARTE EGIN LITEZKE ESKAERAK

Bai Euskarari ziurtagiria dutenei diru-laguntzak emango dizkie Euskara Mankomunitateak

Urtero bezala, mankomunitateak diru laguntza emanen die Bai Euskarari ziurtagiria duten eragileei. Laguntza hori lortzeko, ziurtagiria duten eragileek eskaera orria bete behar dute, eta Bai Euskarari Elkarteari 2016an ordaindu dioten fakturaren kopiaekin eta ordainagariarekin batera, mankomunitatera eraman edo bidali behar dute (Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Herriko Plaza 7, 2. 31790 Arantza. 948634125 / euskara@bortziriak.eus). Eskara egiteko epea 2016ko irailaren 1etik 30era bitartean izanen da.

Bortzirietan 70 bat eragile dira ziurtagiri hori daukatena, eta horiek guztiek eska dezakete diru laguntza. Baldintzei buruzko xehetasunak eta eskaera egiteko orria mankomunitatearen web orrian ikus daitezke (www.bortziriak.eus).

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera. Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Ahatxekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorzaintza.com

EUSKARA → MATRIKULAZIO KANPAINA

Ikasturte honetatik aurrera euskara ikastea debalde izanen da Bortzirietan

‘Euskarara doan bidea’ kanpaina abiatu dute

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan egindako gogoeta prozesu bategi, agerian utzi zuen diru laguntza politika berraztertu eta euskara ikastea doakoa izan zedin bideak urratzeko premia. Gaia landu eta horren emaitza izan da *Euskarara doan bidea* kanpaina; euskara ikastea unibertsala eta do-

koa izatea ahalbidetuko duena. Bortzirietan erroldatua egon eta 16 urtetik gora dituztenei zuzenduta daude laguntza hauek, euskalduntzen, alfabetatzen eta euskara maila hobetzen ari direnei.

Bortzirietako Mankomunitateak, bere gain hartuko du euskara ikasteko eskubide hori herriarguztien eskura egoteko ardura, betiere, ikasleek hainbat baldintza betetzen badituzte. Hala, gutxieneko berratarate eta aprobetxamendu maila egiaztatu be-

harko dute, eta euskaltegia bera arduratuko da horren jarraipena egiteaz.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ustez «euskararen irakaskuntza errazteko babes instituzional eta konpromiso sendo hau eredu izaten ahal da Nafarroako bertze entitate batzuek antzeko neurriak har ditzaten». Bidenabar, helduaroan euskara debalde ikasteko eskubidea ziurtatuta arlo honetan gaztelaniarekiko desabantaila gainditzeko bidean

egon litezkeela uste dute. Horrez gain, pauso hau emanda, bertze herrialde batzuetan abian diren eredu aitzindari eta arrakastatsuekin bat eginen dute Bortzirietan. Erraterako, badira urteak Katalunian katalana ikastea doakoa dela.

IZEN-EMATEA

Interesa dutenek euskaltegira joan behar dute lehenbizi matrikula egitera. Ikastaroaren finantzaketari buruz informatzeko eta eskara egiteko berriz, Eus-

kara Mankomunitatera jo behar dute (948 634 125/euskara@bortziariak.eus).

«2.000 GORA LAGUN EUSKARA IKASTEKO BEHARREAN»

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak datua ere azaleratu du «eskura ditugun azkeneko datuek erakusten dute Bortzirietan badirela ia-euskaldun eta erdalduen artean 2.000tik gora lagun, hortaz, euskara ikasteko beharra dutenen kopurua ez da gutxiestekoa».

BERTAKO HIZKUNTZA IKASTEA, INTEGRAZIOAREN GILTZA



Ane BERGARA | BERA

Barçako futbolaria, Katalunian bizi da.



Lorea SAROBE | BERA

Kirol koordinatzailea, Ingalaterran bizi da.



Beatriz PALACIOS | BERA

Beran bizi den madrildarra. Euskaltegiko ikaslea.



Josemi RAMIREZ | KOLONBIA

Irakaslea. Euskara ikasi du bere kasa Kolonbian.

«Bizitzera zoazen herriko hizkuntza doan ikasteko aukera izatea behar da»

Katalana ikasten hasi nintzen Kataluniara joan nintzenean. Katalunian bada aukera eskola ofizialetan edo akademia pribatuetan ikasteko. Ni hizkuntzaren normalizazioarako kontsultazioan hasi nintzen ikasten doan, eta primeran iruditzen zait hemen Beran eta Bortzirietan heldu den ikasturtean euskara debalde ikasteko aukera izatea».

«Gizartean integratzeko beharrezkoa da bertako hizkuntza menperatzea»

«Diru aunitz gastatu dut ingeleza ikasteko, unibertsitate ikasketekin jarraitu eta lana bilatzeko asmoa nuelako. Horregatik uste dut edozein herritan, erakunde publikoek ekimen desberdinak paratu behar harko lituzketela martxan, bertako hizkuntza ikastea debalde edo merkeago izan dadin, ahalik eta jende gehien animatzeko».

«Ikasturtea hasteko gogoz nago, gainera debalde bada hobele!»

«Madrildik Berara joan den urteko abuztuan etorri nintzen eta gustatzen zait euskara. Hizkuntza polita iruditzen zait, eta gainera lanerako behar dut. Horregatik animatu nintzen ikastera. Joan den urtean hasi nintzen euskara ikasten eta datorren ikasturtean hasteko gogoz nago, gainera debalde izanen denez askoz hobele!»

«Euskara pentsatzen duzuen baina ederragoa eta errazagoa da»

«Euskaraz maiteminduta nago, Kolonbian ikasi nuen eta joan den urtean pare bat egunez izan nintzen Lesakan. Euskara ikastera animatu nahi zaituztet, zuen arbasoen eta bizilagunen hizkuntza; pentsatzen duzuen baina ederragoa eta errazagoa da. Eta orain debalde da. Zeinek dauka aukera hori? Ez dut uste Euskal Herrian jende aunitzek aukera hori izanen duenik».

BERA

OSPAKIZUNAK → ABUZTUAREN 23AN

Illekuetako besten baitan dantza emanaldi berezia izanen da ikusgai

Larunbateko bazkaria nahi duen guziari irekia dela azpimarratu dute auzotarrek

diak aterako dira, trikitixak eta gaiteroak lagundurik.

- 13:00 Herri kirol apostua.
- 14:30 Illekuetako karrikan bazkaria, nahi duen guziari zabalik (auzoko nahiz kanpoko). 20 euro.
- Salda.
- Piperrada.
- Zikiroa.
- Gasna.
- Kafe eta txupito.
- 18:00 Mus txapelketa.
- 19:00 Dantza ikuskizuna, *Tío Teronen semeak*. Altzateko plaza berrian.
- 20:00 Kalejira.
- 20:30 Zezensuskoa.
- 21:00 Musika. Agerralderekin.

IGANDEA, IRAILAK 18

- 12:00 Auzo Meza Id-



UTZITAKO ARGAZKIA

Dantza eta umorea uztartzen dituen emanaldia eskainiko du Tío Teronen semeak taldeak.

DANTZA EMANALDI BEREZIA

Tío Teronen semeak taldearen FreshCool ikusgai

Hainbat jatorritako dantzariak bildu dira Tío Teronen semeak taldea sortzeko. Bi gauza dituzte komunean: dantzatzeko pasioa eta umore paregabea. Urtetan zehar, eta gaur egun arte, euskal dantza tradizionalean murgildurik dauden dantzariak eta musikariak dira, baina, oraingoan, ez dute horrelakorik eskainiko. Dantza eta musika estilo desberdinak joan eta etorriko dira, nahastu eta aldentuko dira; patroiz zehatz bat

jarraitu gabe eta ondo pasatzeko helburu bakarrarekin. Hain zuzen, *FreshCool* ikuskizuna eskainiko dute larunbat arratsaldean Illekuetan 14 dantzari eta 4 musikari (Txistua, txirula, klarineta, haize tresna laguntzaileak, danbolina, atabala, txalaparta, yembeak, darbukak, txindak eta elementu perkusibo desberdinak). «Umorez betetako ikuskizun dantza-tua, orain arte inoiz ikusi ez den bezala». Halaxe definitzen dute.

LARUNBATA, IRAILAK 17

- 12:00 Auzoko besten hasierako altxaferua botako da Konpane zubitik. Ondotikan Erraldoiak eta Buruha-

gotian.

- 12:00 Illekuetako karrikan, haurrentzako marrazki lehiaketa. Pinturak haurrak eka-

rriko dituzte. Komisiok papera jarriko du.

- 16:00 Haurrentzako jokoak.
- 19:00 Gure Txokoa

Dantza Taldearen emanaldia.

- 20:00 Bera kantari.
- 20:30 Pintxo dastaketa.

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tlf: 948 625 474

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.
24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404
BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA
TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta

KULTURA → IRAILAREN 18AN

XII. Pintura-lehiaketa aire zabalean egingen dute igandean

16 urtetik goitikoei zuzendua

TTIPI-TTAPA

Hamar urtez segidan egin ondotik, 1993an egin zen hamargarren Berako margo lehiaketa. 22 urte geroago, izaz lehiaketa berreskuratu zuen Gure Txokoa elkarteak, eta aurten segida emanen diote igandean honetan, irailaren 18an.

Margolarien lana agerian paratu eta artea herritarrengana hurbiltzeko asmoarekin antolatu du Gure Txokoa elkarteak, Udalaren babesarekin XII. Berako pintura-lehiaketa aire zabalean. 16 urtetik goitiko edozeinek parte hartu ahal izanen du, beratarak nahiz kanpoakoak, eta izena emateko egun berean joan beharko da Gure Txokoa elkartearen Jamoteneako egoitzara goizeko 9etatik aitzinera. Euskarria zigilatu egingen zaie partaideei, eta ondotik, lanak arratsaldeko 4etarako aurkeztu beharko dira.

Edozein teknika erabili ahal izanen da, baina margolanaren euskarriak ez du aitzinetik manipulatu egon behar, erabat zuria egon behar du. Euskarriaren neurria librea izanen bada ere, alde bakoitzetik gehienez ere 100 cm eduki ahal izanen ditu.

Hiru sari emanen dira, 900 eurokoa, lehenbizikoa; 600 eurokoa, bigarrena eta 300 eurokoa, hirugarrena. Lan irabazleak Gure Txokoa elkartearen eta lehiaketaren babesle den Berako Udalaren esku geldituko dira, eta gainerakoak egun berean edo ondorengo 15 egunetan jaso daitezke.

Antolakuntzak izendatutako epaimahai batek emanen ditu irabazleen izenak, eta sari ematea lehiaketaren egun berean egingen da, arratsaldeko 6:30ean.

Mendi Bizikleta ibilaldia

Irailaren 25ean, Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako XXIII. mendi bizikleta ibilaldia egingen da, 10:00etan hasita. Helduek bi ibil-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Agerrako bestak umore ederrean

Duela hogeita hemezortzi urte hasitako ohiturari eutsiz, Agerra auzoko bestak ospatu dituzte abuztuko azken asteburuan. Giro bikaina izan zen. Argazkian, auzotar batzuk ageri dira igandeko mezan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

San Martingo presa botatzen hasiak dira

Europako Batzordeak diruz laguntzen duen Life 2014-2020 Planaren baitan, Life Irekibai programaren barnean daude Endarlatsa eta San Martin presak botatzeko lanak. Erreketan dauden oztopoak kendu eta hala, bertan bizi diren espezieen harat-honata erraztu nahi dituzte. Abuztuaren 29an hasi zituen Excavaciones Corella enpresak San Martingo presa eraisteko lanak eta nostalgia puntu batekin, herritar aunitz joan zen presara aurreko asteburuan.

bide izanen dituzte aukeran: 35 km.koa luzerena eta 20 km.koa laburrena. Federatuek eta Gure Txokoako bazkideek 5 euro ordaindu beharko dute izen

ematean eta federatu gabekoei eta bazkideez direnek 10 euro.

10 km.ko ibilbide ttiki ere izanen da, 14 urtez behe-itiko neska-mutikoei zuzendua. Hauek

5 euro ordaindu beharko dituzte izen ematean eta gurasoen baimean aurkeztu beharko dute edo gurasoetakoren batek lagunduta parte hartu.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

FRANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

LESAKA

KULTURA → MUSIKA ARLOAN ERE ZENBAIT LAN ARGITARATUAK DITU

Gaizka Sarasolaren hiru antzezlan liburu bakarrean bildu dituzte

'Erleak, satorrak, beleak' liburua argitaratu du Edo argitaletxeak

Aitor AROTZENA

Azken urteetan idatzi eta taularatutako hiru antzezlanen testuak bildu ditu Gaizka Sarasola antzerkigile, aktore eta musikariak Edo argitaletxeak argitaratutako *Erleak, satorrak, beleak* liburuan: 2013an Gilkitxaro antzerki taldeak estreinatutako *Urak ttiki dire* pieza, 2013an Cafe Bar Bilbao antzerki laburreko gidoi lehiaketa irabazi zuen *Lur azpikoak* lana, eta iaz Lesakan estreinatutako *Talaka*.

Salbuespen izaten dira testu formatuan argitaratzen diren antzezlanak eta oraindik salbuespen handiagoa liburu gisa karrikaritzen diren euskarazko antzezlanak. «Hau kasu berezi bat izan da», aitortu du horregatik Sarasolak.

Musikari eta aktore izanik, antzezlanaren doinua eta pertsonaien keinuak gogoan dituela idazten omen ditu beti testuak. Eskuak te-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gaizka Sarasola erdian, *Bertso atabikoak* edo *Norena da basoa?* antzezlanaren estrainaldian.

klatuan, baina gogoan eszenalekua duela.

Orain paperean bildutako hiru hauek baino lehen ere idatziak dituzte antzezlanak Gaizka Sarasolak, 2004. urtean Euskara Mankomunitatearen beka jaso zuen *Erregea, bufoia eta*

soldadua erraterako. Ondotik ere, iazko abenduan estreinatu zuen *Bertso atabikoak* edo *Norena da basoa?* antzezlanak Mairu Antzerki tailerrarekin (argazkian, bi aktorekin).

Musika arloan, musika irakasle eta txistu-

lari taldeko zuzendari ez ezik, espermentazioa eta soinu berriak maite ditu Sarasolak eta *lxurik* (2004) eta *Ez naiz deusen jabe* (2007) diskak argitaratu zituen Xabier Erkizia herriko soinu-artistarekin elkarlanean.

IRAILAREN 23 ETA 24AN HARRIONDOAN

Garapen atipikoa duten haurren inklusioaz ikastaroa

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Lesakako Osasun Etxeak eta Udalak eta Bortzirietako Guztiok taldeak antolatuta, *Garapen atipikoa duten haurren prozesu inklusiboa hezkuntza eta gizarte sistema eleaniztun batean* ikastaroa eskainiko dute irailaren 23 eta 24an Harriondoan.

12 orduko ikastaroa izanen da, ortziral arratsaldean eta larunbat goiz eta arratsaldean. Osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte zerbitzuen arloetako profesionalentzat, garapen atipikoa duten haurren familiakoentzat eta ikasleentzat zuzendua da eta matrikulazioa 50 euro gostako da.

KIROLA

Mendi bizikleta ibilaldia iganderako prest du Beti Gaztek

A. AROTZENA

Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako mendi bizikleta ibilaldia bi ibilbide eskainiko ditu aukeran igandean: 42 kilometro luze eta 1.800 metroko desnibela duena luzeena eta 28 kilometro luze eta 1.000 metroko desnibelekoa laburrena.

Irailaren 18an, igande goizeko 9etan abiatuko dira txirindulariak eta 07:30etik 08:45era izanen dute izen emateko aukera. Igandean izena emanez gero, 20 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 25 euro federatu gabekoek (egun horretarako aseguru barne). Aitzinetik *kirolprobak.com* webgurearen bitartez eginez gero, 13 eta 17 euro ordaindu beharko dituzte, hurrenez hurren. Beti Gazteko bazkide federatuek 10 euro ordaindu beharko dute eta federatu gabekoek 14 euro.



JAIONE-COXOTEGIA
948 630 786
Aitzate, 21 • BERA

IRU BIDE
Erretegia • Asador
Burrana, 3 • Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattogorria
lentzeria mertzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

xuga
tel. 948 631 519
www.xugabera.com
www.facebook.com/xugabera

GIZARTEA → ESKOLAKO DATUAK

Urtetik urtera ikasle kopurua handitzen ari da Landagain eskolan

Ikasturte honetan 83 ikasle hasi dira

Irene ELIZAGOIEN

Irailaren 7an hasi dute 2016-17 ikasturtea Landagain eskolan. Aurtengoan 10 ikasle berri hasi dira 3 urteko gelan eta guztira 83 ikasle eta 15 irakasle izanen dira.

Ikasle kopurua handitzen ari da azken urte hauetan eta aurten iaz baino gela bat gehiago erabiliko dute. Aurtengoan beraz eskolako txoko guztiak beteak daude eta ez da espazio librerik izanen. Irakasle eta ikasleek ere gogotsu hasi dute ikasturte berria eta emanorra eta lasaia izatea espero dute.



ARGAZKIAK: REBEKA ARANZADI

Udako oporraldiaren ondotik, berriz ere lanean hasiak dira eskolako ikasle eta irakasleak.

Turismo bulegoa

Azken urteetan bezala, aurten ere turismo bulegoa zabalik egon da udan. Jende aunitz ibili da udan herrian eta turismo bulegora ere turista aunitzek egin dute bisita. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra 1.430 pertsona inguru pasa dira. Lehengo urteetan

ez bezala aurtengoan lehenengo aldiz madrildarrak izan dira turismo bulegotik gehien pasatu direnak. Erran behar da Madril, Bartzelona eta Valentziako bisitariak izan direla gehienbat herrian ibili direnak. Mendi bideak, herriak, kobazuloak eta gero eta gehiago Dolores Re-

dondoren *Trilogía del Baztan* liburueta segitzaileak Elizondo eta Baztan ezagutu nahia azaldu dute. Bertetik, harrigarria izan da jende aunitz ibili dela azken momentuan ostatu bila, nahiz eta herriko landa etxeak udarako bete-beteak egon duela 3 bat hilabetez geroztik.

GIZARTEA → IRAILAREN 3AN

Usategietako postuen lehen enkantean 30.130 euro bildu dira

Astearte honetan izan da sexteorako aukera

TTIPI-TTAPA

Irailaren 3an egin zen Usategietako postuen lehen enkantea. Ehiztari gutti bildu ziren eta

guttik hobetu zituzten hasierako prezioak. Horren erakusgarri 21 postuetatik 10 hasierako prezioan eman ziren, inolako igoserarik gabe, eta bertze sei hutsik gelditu ziren.

Lehenbiziko sei postuak Etxalarko Ehiztariak elkarteontzat izan ziren eta gainerakoak



ÚTIZITAKO ARGAZKIA

Lehenbiziko enkanteak ez zuen ikusmin handiegirik piztu ehiztarien artean.

partikularrendako. Bi posturik garestienak, zortzigarrena eta hamekagarrena, 3.205 eurotan eman ziren, hasierako prezioan. Hamargarren postuak izan zuten hobekuntzarik handiena, 2.185 euroko hasierako preziotik 2.845 eurora igo baitzen. Hogeigarrena eta hogeita-

batgarrena ere, hasierako 1.625 euroetatik 2.175 eta 2.225era igo ziren.

Emandako 15 postuetatik 30.130 euro jasoko ditu Etxalarko Herriko Etxeak eta hasiera batean 33.545 euro biltzea espero zuen. Gogoratu behar da 2000. urtean 50.000 eu-

ro lortu zituela Udalak eta 2004an 81.875 euro.

Irailaren 13an, astearte arratsaldean izan da sexteorako aukera (prezioaren seiren bat igo beharko litzateke guttienez) eta hutsean gelditutako postuak ere sartu dira bigarren enkante honetan ere.

ARANTZA

HEZKUNTZA → 2016/2017 IKASTURTEA

73 ikasle eta 11 irakaslerekin abiatu da ikasturte berria

Gela berria eta idorpe zati bat egin dituzte eskolan

DATUA

7

IKASLE BERRI hasi dira eskolan ikasturte honetan, guztiak 3 urtekoak. 4 urtekoekin batera egonen dira taldean.

Nerea ALTZURI

Hasi da ikasturte berria eskolan. Akautu dira udako oporrak eta joan den astean, 73 haur eta gaztetxok, 11 irakaslerekin batera, 2016/17 ikasturtea abiatu zuten.

Haur Hezkuntzan, guztira 25 ikasle dira: 3 urteko 7 ikasle berri hasi dira, 4 urteko 9 ikasle dira eta 5 urteko 9 ikasle.

Lehen Hezkuntzan, guztira, 38 neska-mutiko daude: lehenbiziko zikloan, 1go mailan 7 ikasle; bigarren zikloan, 3. mailan 8 ikasle eta 4. mailan ikasle bakarra; eta hirugarren zikloan, 5. mailan 7 ikasle eta 6. mailan 9 ikasle daude. Azkenik, DBH 1. eta 2. mailatan bortzina ikasle hasi dute ikasturtea.

Talde edo unitateen inguruan, erran behar da, Haur Hezkuntzan hiru talde aurreikusi bazi-zen ere, hondarrean, bi talde direla, eta 3 eta 4 urtekoak batera ariko direla. Guztira 16 ikasle dira eta 17 behar dira Hezkuntza Departamentutik taldea bikoizteko bidea emateko.

11 irakaslek osatzen dute klaustroa, eta aurreko irakasle berri duxen-

te daude: DBHko bi irakasleak, Haur Hezkuntzako bertze irakasle bat eta espezialistetan ere berrikuntzak daude. Azken horiek denak ibiltariak dira, Bera, Lesaka, Etxalar eta Igantzik heldu direlako: musikakoa, soinetakoa, erlijioakoa, orientatzailea eta logopeda.

OBRAK ETA AUZOLANA

Eskolan udan agintutako lanak ere egin dituzte. Ongi eta garaiz akautu dituzte, gainera. Gela berria eta idorpe zati berria dute aurrean, eta azken honetan frontoi ttikia eta saskibaloiko kaxkak kokatuko dituzte seguruenik. Lanak Nafarroako Gobernuak ordaindu ditu.

Eskola garbitzeko auzolanak ere egin zizuten joan den abuztuaren 31n eta irailaren 3an. Egin diren obren ondorioz, garbiketa behar zuen eskolak eta herritar talde polita arituzen garbitzen. Udaleko langileak ere jo eta ke-



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU

Gela berria eta idorpea egin dituzte udan eskolan.



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEAA

Giro ederra Eguzkialdeko bestetan

Hitzak soberan dira joan den irailaren 3an Eguzkialdeko bestetan izandako giro polita deskribatzeko. Ikusi, bertzela, argazkiak...

aritu ziren mantenimendu lanetan. Eskolatik auzolaneari aritutako guztiak eskertu nahi izan dituzte.

Eskolako jantoki zerbitzua, berriz, urrian hasiko da.

Ba al zenekien

Medikuaren kontsulta, eskola, Pelle Ttiki Haur Eskola, udal bulegoak eta Baskula garbitzeko bi garbitzaile hartu dituela Udalak? Enkarna Indakoetxea Maiz eta Loli Iraola Maritorenak eman zuten izena eta biak lanaldi erdian ariko dira, abenduaren 31 arte.



SUNBILLA

SUNBILLA

GIZARTEA → UDAREN BUKAERAREN SEINALE

Igerilekua itxi egingen dute eta eskolan hasiak dira 89 ikasle

Horietatik erditsuak erabiliko du jangela zerbitzua

Maider PETRIRENA

Uda akitzear dagoen honetan Sunbillako igerilekuaren atea irekiko dira. Udan igerilekuaz gozatzeko aukera ederra izan dugu.

Horrez gain 2016-17 ikasturtea ere hasi da.

Irailaren 7an Sunbillako eskolako haurrak eskolan hasi dira. Hain zuzen ere, aurten 7 neska-mutiko berri izanen dira eskolarako bidea lehen aldiz egingen dutenak. Osotara Sunbillako eskolan 89 ikasle daude eta 12 irakasle. Jangela zerbitzua ere lehendabiziko egunatik martxan jartzen da bukaera bitarte. Guztira 44 ikaslek zerbitzu hau erabiliko dute ikasturte osoan zehar. Zerbitzu hau iraila eta ekaineko hila-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Igerilekuaz gozatzeko aukera izan da uda bero honetan.

beteetan arratsaldeko 3ak arte izaten da. Lehen Hezkuntza akituta, Doneztebe, Lekaroz eta

Elizondora joaten diren ikasleek irailaren 9an hasi dituzte klaseak.



Ba al zenekien

Bidasoko Trenbidearen mendeurrena gogoratu zuten herriz herri dabilen erakusketa interesgarria herrian izanen dela irailaren 27tik urriaren 11ra



Pertsonaia

Iker MARIZKURENA

Arraun denboraldiko azken txanpan sartua

Hondarribiko Ama Guadalupekoa traineroan jo eta su dabil Iker Marizkurrena sunbilla eta izugarriko denboraldia egiten ari dira. Ale hau ateratzen denean jada Kontxako Bandera nork irabaziko duen erabakia izanen da. Hurrengo alean aipatuko dugu baina, uda osoan bezala, lehia handia dago Urdaibai eta Hondarribiaren artean.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Koldo Herrera denboraldia akitzen

Urtero Rural Kutxak BTT txapelketa antolatzen du. Martxoaren 20an hasi zen Tuteran eta irailaren 18an akituko da, Arazurin guztira 6 karrera eginez. Koldo Herrera parte hartzen ari da. Orain arteko karretan emaitza onak lortu ditu eta hemendik animoak emanen dizkiogu azken txanparako.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Trikitilari eta panderojoleak herriz herri

Sunbillako trikitixa eta panderojoleak hainbat emanaldi eskaini dituzte udan Mendaur trikitixa-pandero eskolarekin, herri ezberdinetan: Elizondo (Baztandarren Biltzarra), Ituren, Legasa eta ikasturte berria hasi baino lehen Sunbillan ere jotzeko aukera izanen dute.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ORTZIRALETIK LARUNBATERA HAINBAT EKITALDI

Besta ttikiak eta Basurde peñaren ospakizuna asteburuan

Paella jateko txartelak Titi ostatuan daude salgai

Marga ERDOZAIN

Besta ttikiak ortziralean ospatuko dira, hau da 16 eta 17an eta Basurde Peña motorzalearen urteurrena ospatzeko besta larunbata eta igandean, hau da 17 eta 18an.

Egitaraurari dagokionez Burrenbat antolatutako bestek honako programazio hau izanen dute: ortziralean 18:00etan plazoletatik abiatutako triki-poteoa, 20:00etan suziria eta 22:00etan Santa Luzia plazan zopak (Titin apuntatu behar da, bazkideek 15 eurotan eta bazkideak ez direnek 20 eurotan); Gauerdian kontzertuak (Kallera, Estu eta Larri eta, ondoren, Modestoren emanaldia).

Larunbatean honako egitaraua prestatu da: 10:00etan mus txapelketa eta 14:00etan Santa Luzia plazan lagunarteko paellada, kuadrila bakoitzak berea prestatuko du. 19:00etan Chuchin Ibanez-en emanaldia eta akitzeko gauerdian Fan&Go taldea.

Basurde peña motorzalearen urteurrena ospatzeko egitaraua honako hau izanen da: larunbata, irailaren 17an: 10:00etan izen-emateen hasiera, 12:00etan ibilbidea geldialdiarekin, izena eman dutenentzat



UTZITAKO ARGAZKIA

Lau bikotek parte hartu dute Doneztebeko IV. laxoa txapelketan

Emilio Zabala, Ramontxo Etxebeste, Eloy Garcia eta Unai Sapuppo izan ziren garaile abuztuaren 27an jokaturako herriko laugarren laxoa txapelketan. 7-5 irabazi zieten Jabierto Almandoz, Xabier Ibarrola, Jabier Bertiz eta Iban Santestebani. Parte hartu zuten bertze taldeak hauek izan ziren: Josu Juanena, Lander Erkizia, Koldo Legarra eta Julen Larretxea talde batean aritu ziren, eta Felipe Ganboa, Txutxin Zabala, Santi San Miguel eta Jose M^a Antzizar bertze talde batean. Torneoaren ondotik, Xanti Uterga alkateak, lehenbiziko partidari xaxari eta epaile gisa aritu zenak, sariak banatu zituen: zerrikume bat eta txanpaina irabazleendako eta gazta eta ardoa bigarren taldekideentzat.

mokadua; 13:30ean poteoa lokal kolaboratzaileetatik barrena; 15:00etan bazkaria;

17:30ean kontzertua eta oparien zozketa; 20:00etan "pikoteo" hotza egoitza. Igande-

an: 10:00etan Ibilbidea; 12:00etan hamaiketako moteroa eta bestaren amaiera.

UDAKO BALANTZEA

1.600 bisitari pasa dira Turismo Bulegotik

1.600 bisitari pasa dira uda honetan Turismo Bulegotik. %88a estatuko turismoa izan da eta %12a nazioartekoa. Datu hauek erakusten dute Malerreka turismorako erakargarria dela eta goitiko joera baieztatzen dute (iaz baino 200 turista gehiago bulegotik pasa baitira).

Kopuru hauetatik azpimarratu behar da ia 300 lagun Kataluniatik etorritakoak izan direla, 220 Gipuzkoa eta Bizkaitik eta 230 lagun Valentzia eta Murztziatik. Nazioarteko turistek dagokionez aipatu behar da gehienak Frantziatik etorritakoak direla (110). Dena den, Alemania, Grezia, Belgika, Britainia Handia, Holandatik... ere bisitariak izan ditugu. Turismo bulegoa uztailaren 5etik irailaren 9ra zabalik egon da eta aurten, lehendabiziko aldiz, bertatik bisita gidatuak antolatu dira. Hamar bisita eskaini dira eta gehienak asteburuetan burutu dira. Doneztebeko historia, eliza eta bere dorrea, karrikak, bertako pertsonaien bitxikeriak, Bear-zana plazaren historia, Tren Txikitoren gorabeherak eta baita Intzakardi parkearen aberastasuna ere gertutik ezagutzeko aukera izan dute bisita hauetan parte hartu dutenek. Aipatu behar da bisita hauek urtean zehar ere burutuko direla.

FLASH

Ur-saneamendu eta ur-andelan sarearen mantentze lanak

Abuztuaren bukaeran ur-andelan eta saneamendu-sarean mantentze lanak burutu zituen Udalak. Aipatu behar da une honetan ur-andela garbi-garbia dagoela eta zituen pitzadurak ere moldatu egin direla. Mantentze lan honetaz gain, ur-saneamenduan ere garbiketarak burutu dira uraren kalitatea hobetzeko. Herritarrei sortutako eragozpenengatik Udalak barkamena eskatu nahi dizkie.

IKA Euskaltegian matrikulazioa

2016-17 ikasturtea martxan jartzeko euskaltegian matrikula epea zabalik du irailaren 30era arte. Interesatuek 948 451555 telefonora deitzen ahal dute edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzi edo euskaltegitik pasatu. Aipatu behar da IKA euskaltegiak eskaintzen dituen ikastaroak Malerrekako Mankomunitateak diruz lagunduak direla.

Tren Txikitoren erakusketa

Abuztuaren 27tik irailaren 5era bitarte Herriko Ostatuan ikusgai egon da eta aipatzen ahal da 250 bisitari izan direla. Doneztebarrez gain, Malerrekako jendea, baita turista anitz ere hurbildu dira erakusketa bisitatzerako. Azaroaren 10etik 20ra berriro Doneztebera ekarriko da. Eskola eta institutuko ikasleendako bisita gidatuak antolatuko dira, nahiz eta denentzako irekia izanen den.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 17AN

Joaldunen eguna larunbatean ospatuko da

Aitor Mendiluze eta Julio Soto ariko dira bertsoan bazkarian

Arkaitz MINDEGIA

Herriko txoko guzietan joare soinuaz gozatzeko aukera izanen dugu irailaren 17an herrian eginen den Joaldunen egunean. Urtero bezala goizean joaldun eta trikitilariak Amezitia auzoan barna ibiliko dira eta 14:00etab herriko plazan, Julen Kañamares eta Mieltxo Mindegiaren arteko aizkora apostua ikusteko aukera izanen da. Ondotik bazkaria izanen da Julio Soto eta Aitor Mendiluze bertsoariekin eta eguna ongi bukatzeko

dantzaldia izanen da Hauspolariet taldearen eskutik.

Manttalak prest eta ikasle-irakasleak lanean

Iturengo Pulunpa eskolan denetara 67 ikasle hasi zuten ikasturte berria. Haur Hezkuntzako 9 neska-mutiko: Alaitz Aioroa, Naroa Elizalde, Malen Bereau, Liherr Isasi, Iñaki Leiza, Gabai San Martin, Olaia Deskarga eta Oskia Dominguez eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan bi ikasle berri ere.

Trikitixa eta pandereta ikastaroa

Datorren urrian hasiko du ikasturte berria Mendaur trikitixa esko-

lak. Apuntatu nahi duenak irailaren 21a baino lehen egin beharko du 646298568 (ainara) edo 685633195 (Arkaitz) telefonoetara deituz.

Udan herriz herri jaialdi politak eskaini dituzte eta orain urriaren 1ean Sunbillan eta urriaren 8an Zubietan Euskararen egunean eginen den jaialdirako prestatzen hasiak dira.

Dantza ikastaroa

Herriko dantzarietara udako atsedendaldian ondotik hankak mugitzeko ordua iritsi zai. Datorren urriak 1ean hasiko dira dantza ikastaroak. Norbaitek apuntatu nahi badu Miren edo Olaiarengana hurbildu urriak 1ean edo beraiekin harremanetan jarri.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehiza sasoia ongi hasi dute herritarrek

Irailaren 1ean hasi zen ehiza denboraldia eta eduki hasi dute sasoia gainera. Oskar Altzu herritarrek 121 kiloko basurdea ehizatu zuen.

Ba al zenekien

XIII. mende hasieran eraiki eta Gaztelako tropek 1522an bota zuten Orzorrotzeko gazteluko aztarnen bila ibili direla udan. Lurra kenduz, agerian uzten hasiak dira oinarriak.



13. Nice



14. Mary



15. Mary

Udako merkealdia

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → EGUNA ZEHAZTU DUTE GAZTEEK

Urriaren 8an izanen da aurten Euskararen Eguna

Bezperan ere zenbait ekitaldi izanen dira

Fermin ETXEKOLONEA

Euskararen Eguna antolatzen hasiak dira gazteak. Urriaren 8an izanen da, baina bezperan ere zenbait ekitaldi antolatuko dituzte. Bileratan hasiak dira eta eguna zehaztu dute berderen. Egitarau zehatza hurrengoan.

Ikasle berriak

Hiru urteko hiru ikasle hasiko dira Doneztebeko eskolan (Ekhi eta Ainhize Asensio eta Enaitz Elizalde) eta bakarra Iturengoan (Oskia Elizalde).

Udaleko kontuak

Nafarroako Museo Etnografikorako joalduna osatzen ari dira. Joarreak lortu eta Lizarrako biltegian barrena ibili zen udal ordezkari hirik



ARGAZKIAK: JON MIKEL ARAGON

Piszinaren faltan, Ezkurra erreka urarekin frexkatzen gara zubietarrak uda partean.

entregatzen irailaren 6an. Joalduna osatua gelditu da eta museoan ikusteko aukera izanen da.

Baserritako seinalizazioa

Tracasakoak, foruzai-

nak, Nafarroako Gobernuko ordezkariak, Osasun bideak eta Baztango zinegotziak ibili dira proiektu pilotu hau ikusten eta bertze herrietan aplikatzeko izan daitezkeen auke-
rak aztertzen.

Patxi Mindegia

Nafarroako hirugarren mailako irabazi ondotik, Patxi Mindegia Euskal Herriko hirugarren mailako kanporaketan aritu zen, baina ez zuen finalerako sailkatzea lortu.

EZKURRA



TURISMOA → BALANTZE POSITIBOA

Bisitari ugari izan da herrian aurtengo udan

Europa, Amerika eta Asiatik etorriak

Fernando ETXEBERRIA

Herriko giroaz gozatu eta jateko goxoak dastatzera bisitari asko

etorri dira udara honetan. Turismo arloan lan egiten duten herritarrek balorazio positiboa egin dute, Barranka Ostatua eta aterpetxea eta landetxeak beteta egon dira uztailan eta abuztuan. Batzuk, hurbileko

herritatik, egun pasa etorri dira eta horiekin batera, urrutitik ere etorri dira; tartean, Amerika, Asia eta Europako txoko desberdinetatik. Frantziar eta belgikar gehiago etorri dela ere nabaritu da, beharbada



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkontza kontuak irailan

Irailan herrian bizi diren bi bikote ezkondu dira. Ezkontza zibilak izan dira biak eta egia errateko, azken aldian, erlijiosoak baino ugariagoak dira gurean ere. Irailaren 3an, Ivan eta Ana ezkondu ziren Ezkurako udaletxean. Bizkaia eta Gipuzkoatik etorri ziren due-la urte batzuk herrira eta Portuneko Bordan bizi dira. Irailaren 10ean, Kasteneako Eneko eta Laida ezkondu ziren (argazkian). Donostiarra da Laida eta Oreretan ezkondu eta Igeldon egin zuten bazkaria.

terrorismo kontuengatik.

Bestei buruz informazio gehiago

Ttipe Ttapako azkeneko aldizkarian beste-tako zenbait ekitaldiren

laburpena egin genuen. Aurten aurreko urteetan baino parte hartze handiagoa izan dela azpimarratu behar da. Herri bazkarian 80 pertsona bildu zirela aipatu genuen baina 136 izan ziren.

BESTAK → IRAILAREN 28TIK URRIAREN 2RA

Iraileko azken egunak eta urriko lehenbizikoak bestan lotuko dituzte

Jexux Mari Irazu eta Julio Soto bertsolariek girotuko dute herri bazkaria

- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Herriko dantzarien emanaldia. Ondoren, luntxa Herriko Ostatuan.
- 17:00 Gorriti eta bere animaliak.
- 20:30 Tortilla eta postre lehiaketa. Segidan, bingoa.
- 20:00-22:00 Agerralderekin dantzaldia.
- 23:00-01:00 Agerralderekin dantzaldia.
- Goiz eta arratsaldez haur eta gaztetxoentzat puzgarriak.

TTIPI-TTAPA

Irailaren 28an hasita, bortz egunez luzatuko dira Sanmigel bestak. Musika, bazkari eta afariak, dantzariak, herri kirolak... izanen dira aurtengo egitarauan.

ASTEAZKENA, IRAILAK 28

- 18:00 Puzgarriak.
- 21:00 Zopak Herriko Ostatuan.
- 00:00 Salaberriekin dantzaldia.

ORTZEGUNA, IRAILAK 29 SAN MIGEL EGUNA

- 10:30 Mus txapelke-

ORTZIRALEA, IRAILAK 30

- 10:00 Mus finala.
- 10:30 Haur jokoak.
- 14:00 Herri bazkaria: Jexux Mari Irazu eta Julio Soto bertsolariekin. Arratsaldean, musika Salaberri soinu-lariarekin.
- 00:00-05:00 Dantzal-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haur joko eta puzgarriak ez da faltako aurtengoan ere. Eta ohiturari eutsiz bertsolariak harituko dira kantuan herri bazkariaren ondotik.

dia Oharkabe musika taldearekin.

LARUNBATA, URRIAK 1

- 12:00 Aizkora apustua: Migeltxo Mindedgia eta Iker Vicente,

Erasun eta Kañamare-sen aurka.

- 17:30 Doneztebeko dantzariak.
- 21:00 Gazteen afaria. Arratsaldez eta gauez Dj Endara.

- Goiz eta arratsaldez puzgarriak.

IGANDEA, URRIAK 2

- Herria denen artean garbitu eta txukun txukun utziko dute.

Urrozko Udalak

besta zoriontsuak opa dizkizue urroztar eta bisitari guztiei

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

BORDAKOIA
Gure Haragia
Nuestro Carne
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordakoia.com

Origi puzan bestak!
Herriko ostata

- Plater konbinatuak
- Bokadilloak
- Razioak
- **BESTETAN ZOPAK!**

LOGELAK ditugu

San Migel, 1 • URROZ
948 920 981
urrotz@herrikostatu.com

ARKUPEAK

GIZARTEA → IRTEERAK

Abuztuko azken asteetan batetik bertzera ibili dira erretiratuak

212 bazkide joan ziren Arantzazuko irteerara

Fernando ETXEBERRIA

Abuztuaren 31n, Arkupeak elkarteko 212 bazkidek irteera egin zuten Arantzazura Ama-birjinaren bederatziru-rena ospatzeko. Autobus guztiak 11:00ak baino lehenago iritsi ziren Arantzura eta hala, nahi izan zuenak konfesatzera joan eta 12:00etan 23 apaizek emandako meza entzuteko aukera ere izan zuten.

Eguerdia arte guztia antolatu bezala joan bazen ere, eguerditik aurrera arazoak hasi ziren. Jatetxe antolakuntza eskasaren ondorioz, ordu erdi baino gehiago egon behar izan zuten bazkaltzeko esperoan. Aurreko urteetan Azpeitiara joan ohi ziren bazkaltzera baina aurten Arantzazun bertan bazkaltzea erabaki zen. Bi izan ziren erabaki hori hartzeko arrazoiak: Azpeitirainoko ordu eta erdiko bidea ez egitea eta bertatik bertara menu goxo eta merkeago bat topatu izana (urdaiazpiko iberiara, kroketak, entsada gulekin, bildots errea eta pantxineta txokolatzeko kremaz beterik). Ez zegoen aurreikusia ordea, jatetxea

ren funtzionamendu kaxkarra.

Orain arte 14 ateraldi egin dira eta guztiak erabateko normaltasunez eta inongo kexarik gabe joan dira. Horregatik, harrigarria da elkarteko kideren batek Arantzazun izandako ezusteko horren aurrean erakutsi zuen jarraera.

Mendi irteera Aizkorriara

Abuztuaren 23an, irteera berezia antolatu zen Aizkorriara. Goizean goiz abiatu zen autobusa Doneztebetik, 06:30erako eta Bortziriak, Irun, Leitza eta Iurako mendizaleak biltzen joan ziren bidean. 09:00etan Arantzazutik Urbia alderantz abiatu ziren. Bertan gosaltzeko aprobetxatu zuten, aurrez aurre zuten aldapa gogorra igotzeko indarrak hartuz. 11:30 aldera iritsi ziren Aizkorriko gainera, 1.528 metroko garaiera duena. Mendian esperientzia dezente duen taldetxo bat Aketegi, Arbelaitz eta Aiturira (1.551 metro) igo zen eta gero Urbian elkartu ziren taldeko besteekin. Bertan dagoen jatetxean bazkalduta zuten batzuk eta hirurak alderako Arantzazun ziren bueltan. Berroari aurre egiteko freskagarri bat hartu ondo-



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Goitian Aizkorriara joan zen mendizale taldea. Bertze irudietan Arantzazuko ateraldian parte hartu zutenak.

tik abiatu ziren etxe aldera. Hurrengo irteera irailean egingen dute Saioa mendira.

Bidaia gehiago

Datozen bi bidaiak ere prest dituzte. Lehenbiziko ateraldia Lezora egingen dute irailaren 14an eta aurten jatetxer alduta eta Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean izanen da bazkaria.

Nafarroako Pirinioetara antolatutako bidaia berriz, urriaren 6an egitekoa zuten. Irteera hau, gehienez ere, 50 pertsonentzako antolatuta

zegoen baina lauogeitahamarrek eman dute izena arazoak eragin ditu. Juan Pito jatetxean ez dago hainbertze pertsonendako tokirik. Taldea bitan banatu eta batzuk Isabako kanpinan bazkaltzea izan zen lehenbiziko ideia, baina Arantzazun izandako arazoaren ondotik, denek toki berean bazkaltzea erabaki zen azkenean. Hala, bi ir-

teera egingen dira azkenean. Urriaren 5ean Baztango kideak joanen dira eta urriaren 6an Irun, Bortziriak, Doneztebe eta Leitzaokoen txanda izanen da.

Eta bukatzeko, urriaren 7tik 14ra 51 bazkide herrialde Baltikoak ezagutzera joanen dira. Hurrengo Ttipi TTapan emango dizki-zuegu xehetasun gehiago.



Ba al zenekien

Bazkidearen eguna urriaren 20an ospatuko dela Gorraizen. 500 pretsona baino gehiago biltzea aurreikusten da.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 18AN

9. Euskal Jaia ospatuko dute Iskibi kanpinean

Umore Ona abesbatzak emanaldia eskainiko du eguerdian

TTIPI-TTAPA

Herriko festen artean, gero eta indar handiagoa hartzen ari den Iskibiko Euskal Jaia igande honetan, irailak 18, izanen da. Bederatzigarren edizioa beteko du aurtengoan.

Eguerdian hasiko da festa. 12:30ean Goizuetako Abesbatzak emanaldia eskainiko du. Ondoren, talo jatea egingen

da herriko talogileen eskutik; Sagardoa, ardoa, kafea edo koparik ere ez da faltako. Trikitixa ere izanen da egun osoan giroa alaituz.

Arratsaldeko 5etan toka txapelketa jokatuko da.

TXARTELAK

Euskal Jai honetan parte hartu nahi duenak Amaia kafetegian edo Iskibin berean eskuratu ahalko ditu txartelak, 16 eurotan.

Joan den larunbatean, Iskibiirfest Garagardo Festaren bigarren edizioa ere ospatu zuten kanpinean, giro ederrean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Artikutzako San Agustin egunarekin bukatu dira herriko festak

Abuztuaren 28an, San Agustin egunez, jendetza bildu zen beste urte batez Artikutzan. Eguna bustitig argitu eta tarteka xirimiri pixka bat egiten bazuen ere, ez zen oztopo izan urteroko ohiturari eusteko. Meza, pilota partidak, herri kirol saioa eta eguna borobiltzeko dantzaldia izan zuten. Horrez gain, artisauen postuak, talogileenak eta ostatuak ere paratu zituzten.

ARANO

OSPAKIZUNA → EGUN OSOKO PESTA

Herriko 16 haurrek hasi dute ikasturtea Xalto eskolan

Nahia eta Adei dira ikasle berriak

Ainhoa ANSA

Ikasturte hasierarekin batera, eguneroko

joan etorrien txanda ailegatu da; Goizuetarako bidea hartzen dute goizero herriko 16 haur eta gaztetxok. Aurten bi dira eskolan hasi diren ikasle berriak, Nahia eta Adei.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Oihan Legarretak saria irabazi du Alesbesko ipuin lehiaketan

Iraileko lehenbiziko asteburuan Oihan Legarretak Alesbesko ipuin lehiaketan saria eskuratu zuen *Tiro bat* lanarekin. Tuterako Argia Ikastolak antolatu zuen lehiaketa eta euskararen egunaren barrenean egin zen sari banaketa. Senda Vivarako bi sarrera eta eskolako materiala oparitu zizkieten eta oso pozik ze goen. Zorionak!

LEITZA

OSPAKIZUNA → EGUN OSOKO PESTA

Irailaren 18an ospatuko da Talo Eguna

Erosketak egiten dituztenek sariak eskuratu ditzateke

JM BARRIOLA

Plazaola Partzuergoak eta Leitzako Udalak elkarlanean antolatatu dute XII. Talo Eguna irailaren 18rako. Goizeko hamarretan irekiko da azoka eta bertan artisauen postuak, taloarekin zerikusia duten lanabesak eta zenbait langintza zuzenean ikusiteko aukera izanen da. Horiekin batera, tresna zaharrak eta baserriko zenbait animalia ere pla-

zaratuko dituzte eta txikienek gurdian ibilitezko aukera izango dute. Villabona eta Saralegi familiek ere ez diote hutsik eginen urteroko hitzorduari eta mota guztietako taloak prestatzen ariko dira goizean eta baita arratsaldean ere, 17:30etik aurrera. Taloak egiten ikasteko tailerrak ere antolatu dituzte 4 eta 14 urte bitartekoentzat eta eskualdeko talo lehiaketa eta pintxo lehiaketa ere izanen dira. 12:00etan hezki kirol saioa izanen da plazan eta azokan erosketak egiten dituztenen artean zozketak ere egiten dituzte eguerdian.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mota guztietako taloak dastatzeko aukera izanen da aurtengoan ere.

OBRA ORDAINTEKO EZ DU MAILEGURIK ESKATUKO

Kiroldegia txukuntzeko lanak esleitu ditu Udalak

Kiroldegia nahiko egoera kaskarrean zegoen eta urtez urte arazoak ugaritzen ari zirela ikusita, berritze lanak ari dira egiten. Hasteko, teilatua konpondu zuten eta orain, estruktura indartzen ari dira. Udalak azken batzarraren esleitu zuen obraren zati handiena. Lanen irteerako prezioa 347.520,66 eurokoa (BEZ kanpo) zen, Victorino Vicente SL. enpresa nafarrak hartu ditu lanak 336.196,84 euroren truke (BEZ kanpo) eta kiroldegia hilabeteko epean erabilgarri izateko baldintzarekin. Leihoguztiak berritu eta isolatu beharko dituzte eta aldagelak moldatu eta muskulazio gela ere berrituko dute. Aipatu behar da obra hau ordaintzeko Udalak fondo propioak erabiliko dituela eta ez duela inolako mailegurik eskatu. Adostutako epeak beteta, kiroldegia azaroan erabilgarri egotea aurreikusten da.

KIROLA → AURRERAKO MENDIBIL BTT TALDEKOEK

Leitzulia BTT mendi ibilaldia urriaren 8an izanen da

Irailaren 17a baino lehen izena ematen dutenek kamiseta izanen dute opari


JM BARRIOLA

Mendi bizikletaren gainera igo eta Leitzako kaxkoetan barna itzulua egiteko aukera izanen dute zaleek urriaren 8an. Leitzulia antolatu dute lehenengoz Aurrera Elkarte Mendibil BTT taldekoek eta antolakuntzako

azken lanetan buru-belarri dabil-tza. Leitzako paraje, xenda, igoe-ra, jaitsiera... ederrenekin 42 kilometroko ibilbidea prestatu dute, 1.400 metroko desnibel metatua duena.

KAXKOZ KAXKO

Ibilbidea Leitzako plazan hasi eta bertan bukatuko da. Plazaolatik barna egiten dira lehenbiziko kilometroak baina hortik aurrerakoak Leitzako kaxkoak zeharkatuz osatu beharko dituzte. Ez da proba lehiakorra eta guztia mendiko xenda



eta basoetan barna egiten da, erreperiderik ia zapaldu gabe.

IZEN-EMATEA URRIAREN 3RA ARTE

Izena emateko epea urriaren 3ra arte dago zabalik eta internet bidez, kirolprobak.com helbidean soilik egin liteke. Gainera, irailaren 17a baino lehen izena ematen dutenek, kamiseta bat izanen dute opari. 18 urtetik gorakoei zuzenduta dagoen proba da eta ibilbideak duen zailtasun maila dela eta al-

dez aurretik prestatzea beharrezkoa da.

Federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek berriz, 18 euro. Trukean, parte-hartzaileek hainbat opariz betetako poltsa jasoko dute. Zeharkaldian bi hornidura puntu ere jarriko dituzte eta dutxak, bizikletak garbitzeko mangleak, apar-kalekuak... prestatuko dituzte. Opariak ere zozketatuko dituzte eta helmugan edariak eta pintxoak ere jarriko dituzte.

KIROLA → IRAILAREN 4AN

437 mendizalek parte hartu dute IX.mendi martxan

laz baino 80 gehiagok

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Mendi Martxaren IX. edizioa ospatu zen iraileko lehenbiziko asteburuan. Parte hartze handia izan zen aurtengoan ere, 437 mendizalek egin zuten ibilbidea, iaz baino 80 bat lagun gehiagok. Eguraldi ederra izan zen goizean goizetik, eta hainbat lagun aurrez izena emanda baldin ba zeuden ere, egunean bertan proba hasi baino lehenago herriko plazara agertu eta asko izan ziren izena eman zutenak. Goizean buelta egin ondoren paella ederra jan zuten guztiak urtero legez eta askok arratsalderarte luzatu zuten bisita, eguraldi ona aprobetxatuz herrian geratu baitziren itzalpean. An-



ARGAZKIAK: ANA GOÑI

Eguraldi bikaina lagun, parte hartzeak goiti egin du aurten.

tolatzaileak aurtengo edizioaren balorazio ona egin dute eta proba aurrera atera ahal izateko boluntarioen lana gorai-patu dute beste behin. Hobetze aldera, ibilbidearen azken zatia hobeto seinalizatu behar dela ikusi dute, mendizaleei bidea errazteko.

OHARRA

Aresoko pesta batzordeak eskerrak eman nahi dizkie pestak aurrera atera ahal izateko euren laguntza eman zuten babesle guztiei. Bide batez, argitu nahi du programa osatzerakoan egindako akats bat tarteko, ez zirela agertu Tomas Pellejero eta Txomin Gereñoren iragarkiak. Hauek, urtero bezalaxe, euren laguntza eman zuten, beraz barkamenak eskatu eta eskerrik asko!

AISIALDIA → 2016-2017 IKASTURTEAN

Haur eta helduentzako kirol jarduerak eskainiko dira herrian

‘Funtzional expres’ ikastaroa izango da astean bitan

Juana Mari SAIZAR

Kirol Mankomunitateak eta Aresoko Udalak, 2016-2017 ikasturterako kirol eskaintza polita prestatu dute aurtengoan ere herrian bertan kirola egiteko aukera emanez. Aurreko ur-

teetan bezalaxe, *jolas-mugi* antolatu dute Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila arteko ikasleentzat. Asteazkenetan izango dira saioak, eskola bukatu ondotik, Haur Hezkuntzakoak 16:30etik 17:30era eta Lehen Hezkuntzakoak 17:30etik 18:30era. Horretaz gain, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat *Kirol-mugi* ere antolatu dute, astelehene-

tan izango da 17:00etatik 18:00etara. 75 euro balio du.

Helduek, astelehen eta asteazkenetan izango dute gorputza astintzeko aukera *Funtzional expres* ikastaroan. 45 minutuz, ariketa ugari konbinatzen dituen entrenamendu berezia egiteko aukera izango dute, 17:15etatik 18:00etara. Izen eman nahi dutenek 135 euro ordaindu beharko dituzte.

IRAILAREN 5EAN

Egur loteen zozketa egin dute

Urtero bezala, Aresoko Udalak egur loteak eskuartzeko aukera eman die herritarrei. Aurtengoan, pagoaz gain, haritzeko loteak eskatzeko aukera ere izan da. Dena den, haritzeko lotea eskatu dutenen kopurua ez da handia izan eta hori ikusirik, loteetako batzuk haritza eta pagoa nahasiz osatu dituzte. Hala, pagoa edo haritza eta pagoa nahasita zuten loteak izan dira aurten banatu dituztenak. Irailaren 5ean eguerdiko 12etan egin zen zozketa eta etxe bakoitzari zein lote egokitu zaion jakiteko zenbakiak banatu zituzten, hain justu lotea eskatzeko momentuan apuntatu ziren ordenaren arabera. Pistako loteak ere zozketa berean banatu zituzten. Azken hauek, zozketaren emaitzen arabera Guratzen edota Gañarben jaso ahalko dituzte loteak. Orain, egurra atera ahal izateko pista egin beharra dago. Hainbat enpresek aurkeztu dute aurrekontua eta Udalak laister egingo du aukeraketa.

EHIZA

Ehizarako araudi berria adostu du Usoa Elkarteak

Ehiza elkarteko ki-deen kopuruak behe-ti egin duela ikusita, ehizarako araudian zenbait aldaketa egitea adostu du Usoa Elkarteak. Hala, aurrerantzean aresoarrak izan ez baina gurasoak bertakoak dituztenek edo zituzten ehiztariak herrian ehiza egiteko aukera izango dute. Deialdia inguruan zabaldu zuten ehiza elkarte-koek eta sei izan dira interesa agertu dutenak. Guztiak onartu dituzte eta horrela, izan diren bajak parekatzea lortu da.

FLASH

Uso postuen enkantea 17an

Enkantea 19:00etan Udaletxean izango da eta sesteoa irailaren 23ko 20:00ak arte egin ahal izango da. Bigarren enkantea irailaren 24an izango da.

BAZTAN

GIZARTEA → NAFARROAKO ARTZAIN ZAKUR TXAPELKETAN AMAIURTARRA GARAILE

Joxe Mari Ixtilart eta bere zakurrak nagusitu dira Uharte Arakilen

Larunbat honetan jokatuko den Euskal Herriko finalean izanen dira Axpen

TTIPI-TTAPA

49. Artzain Eguna izan zuten abuztuko hondar asteburuan Uharte Arakilen eta hainbat txapelketa jokatu ziren bertan. Artzain Txakur Txapelketan, lehenbiziko aldiz lortu zuen txapela Joxe Mari Ixtilart amaiurtarrak, *Lagun* zakurrearekin. Gainera, bigarren postua ere berezkat izan zen *Bizkor* zakurrearekin. Oronozko Jorge Oteiza seigarren izan zen, *Arakil* zakurrearekin. Aresoko Antonio Alustizak zazpigarren eta zortzigarren postuak eskuratu zituen, *Bat* eta *Jai* zakurrekin egindako elkarlana-rekin.

Hala, Joxe Mari Ixtilartek lortu du irailaren 17an Axpen (Atxondo,



ARGAZKIA: JAVIER BERGASA/D.NOTICIAS

Joxe Mari Ixtilart amaiurtarra kontent, *Lagun* eta *Bizkor* zakurrekin, lehen aldiz Nafarroako Artzain Txakur txapelketan garaile suertatu ondotik.


Bizkaia) jokatuko den Euskal Herriko finalera joateko txartela. Horrez gain, Nafarroa ordezkatu du Oñatin irailaren 25ean jokatuko den Nazioarteko Txapelketan. Aldi berean, irailaren 4an Ribes de Freseren (Girona, Herrialde Katalanak) eta urriaren 5ean Castellterçolen (Bartzelona, Herrialde Katala-

nak) eginen diren erakusketetan ere Nafarroa ordezkatzera joanen da bere zakurrekin.

Uharte-Arakilgo ospakizunean omendu zuten Ixtilarten ama ere, Pilar Elizalde Jaimereña, Amaiurko Bordaxurikoa. Orain arte Nafarroako Artzain Txakur Lehiaketan parte hartu duen emakume bakarra

izan delako.

Gasna txapelketan, Leitzako Joxe Jabier Sestorainek laugarren postua eskuratu zuen eta ardi eta bildotsekin hainbat sari ere eskualdera etorri ziren: Azpiluetako Juan Jose Irungarai, Iturengo Isidro Bazterrika eta Arizkongo Irigoien Rekarte sarituak izan ziren.



Pertsonaia

M^a Jesus LARRETXEA

Etxetxia gasnak nazioarteko sona lortu du

Great taste awards 2016 Nazioarteko sukaldaritzako lehiaketan saria eskuratu du Maria Jesus Larretxea gasnagile elizondarrak. 10.000 jakiren artetik aukeratu izan da Etxetxipiko ardi-gasna. Lehiaketa honetan bi izar lortu zituen. «Gure gasnetan Baztango base-rien bizimodua islatu nahi dugu» adierazi du Larretxeak. Elizondokoarekin batera, Elgoibarko Mausitxa eta Arabako La Leze gasnategiek lortu dituzte sariak hemen ezezagun xamarra izan arren Ingalaterran prestigio handia ematen duen nazioarteko lehiaketa honetan. Aipatzekoa da azaroaren 16tik 18ra Donostian eginen den *International Cheese Festival*ean Mundu osoko 3.000 gasna espero dituztela.



**ORAIN FANTXIKEN
EHIZARAKO ARROPETAN
AUKERA ZABALA:
GALTZAK, ZAMARRAK,
TXALEKOAK...**

ETORRI IKUSTERA!!

Jaime Urrutia, 15 · ELIZONDO · 948 580 312



MOZIOA → ABUZTUAREN 25EAN

Aroztegiko UGPSaren aurkako epaiketan parte hartuko du Udalak

Premiazko mozioa aurkeztu zuen Geroa Baik maiatzaren 30eko botoa aldatzeko

OHARRAK

Geroa Bai, UPN eta Baztan Auzolanean alderdietako zinegotzien aldeko 7 bozkarekin onartu zuten mozioa lantzea.

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, maiatzaren 30ean egin zuen osoko bilkuran, aho batez erabaki zuen Aroztegiako UGPSaren inguruko epaiketan ez zuela parte hartuko. Abuztuaren 25eko bilkuran, ordea, premiazko mozioa aurkeztu zuen Geroa Baik botua aldatu ahal izateko.

Geroa Bai, UPN eta Baztan Auzolanean alderdietako 7 zinegotzien aldeko botuekin eta EH Bildu eta Baztango Ezkerrakoen kontrako botoekin, aurrera egin du mozioak. Hala, botua berriro eman eta Baztango Batzar Nagusiak Aroztegiako UGPSaren aurka abiatutako epaiketan parte hartzea erabaki du Baztango Udalak.

Joseba Otondo Baztango alkateak Geroa Baiko kideei mozio horren urjentzia edo premiazko izaera argudiatzea eskatu zien. Geroa Baiko zinegotzi Ru-

ben Zigandak erranzuen maiatzaren bozka emateko orduan erratu egin zirela eta gaia berriz lantzea nahi zutela. Alkateak, berriz ere premiazko izaera argudiatzeko eskatu zion eta Ruben Zigandak, erranzuen premia duen gaia dela eta ZIPean puntu hau aipatzea pasa egin zitzaizela.

Hortan gelditu zen afera eta mozioa tratatu edo ez bozkatu zuten. Geroa Bai, UPN eta Baztan Auzolanean alderdietako zinegotzien aldeko 7 bozkarekin, mozioa lantzea onartu zuten.

Joseba Otondo alkateak jarrera aldatuta horren funtsean zer dagoen galdegin zuen, 3 hilabeteren buruan gai beraren inguruan kontrako jarrera agertzea zer gertatu den argitzea gustatuko litzaiokeela.

Zigandak, kontu argi zegoela aipatu zuen, duela 3 hilabete bozka



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aroztegiako proiektuak zer errana sortzen segitzen du.

AROTEGIako UGPSAREN EPAIKETAN PARTE HARTZEA ERABAKITA

Baztango Udala eta Batzar Nagusiak aurrez aurre jartzea leporatu dio EH Bilduk Geroa Bairi

Erabaki honen aurrean Baztango EH Bilduk salatu du Geroa Baik Baztango Udala, Baztango Batzar Nagusien kontra judizialki jokatzera behartu duela. Alkatetzat duen EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak Udalak epaiketan parte hartzearen aurka bozkatu zutela ere gogorarazi dute eta bere garrantzian Baztango Batzar Nagusiak Nafarroako Gobernuak Aroztegiari buruz onartutako UGSari helegitea aurkeztu ziola gaineratu «bertzeren artean, udalaren hirigintza eskumenak eta autonomia defendatzeko, Aroztegiako herri-lurren desjabetza gelditzeko eta Lekarozko Herriak proiektuaren kontra duen iritzia betearazteko».

Abuztuaren 25ean hartutako erabakiarekin diote «Geroa Baik udalaren autonomia urraketa eta eskumen gabetzea babesten du, lekaroztarren eta baztandarren erranari kasurik ez die egiten eta herri lurren lapurketari bidea ematen dio». EH Bilduren ustez, «bereziki larria da udal hautetsiak izanik interes partikular batzuei fabore egiteko udal autonomiaren eta kompetentzien kontra egitea. Baztanen etorkizuna guztiz baldintzatzen duen proiektu honen aitzinean, udaleko hautetsiek ez badituzte Baztango erakundearen kompetentziak defendatzen zertarako daude udalean?»

Aldi berean, oroitarazi nahi dute «aldaketaren indarren artean Geroa Bai dela proiektua defendatzen duen bakarra. Hala, aldaketaren gobernuaren lehen urtearen balantzea egiten ari den honetan, Aroztegia demokratikoki eta herritarrei entzunez konpontzea funtsezkoa da. Modu horretan bakarrik lortuko da inposaketan eta pelotazo urbanistikoan oinarritu den politikaz zaharraren aitzinean sinisgarritasuna izatea. Gobernuak ongi aski daki afera konpontzeko legalak diren berte bideak badirela, gorderik dituen txostenak dioten bezala». Horregatik «bertze behin Aroztegiako UGSa gelditu eta herritarren iritzia errespetatzeko eskaria» egin du EH Bilduk.

ematerakoan erratu egin zirela eta orain bozka egokia eman nahi zutela.

Ondotik Mikel Ortega EHBilduko zinegotziak errantzun zion orain bai, orain ez ibiltzea ez dela serioa. Gainera mozioa juxtu premiaz eta Lekarozko bestak zirenean aurkeztuz.

Berriz ere Ruben Zigandak hartu zuen hitza, azalpenak maiatzeko osoko bilkuraren aktan omen daude. Uda garaia dela eta oportunitate egon direla, ez zuelako zinegotzi guztiak eta orain, zinegotzi guztiak daudenez eta mozioa aitzinet atera zuten ahal dutenez, ora-

in aurkeztu dutela. Hori Joseba Otondo alkateak eta Maite Iturre zinegotziak errantzun zioten.

Ondotik Baztango Batzar Nagusiak aurkeztutako helegitearen inguruan gauza batzuk oroitarazi nahi izan zituen Otondok, bozkatu baino lehen.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 24AN

Zikiro jatea eta herri kirolak izanen dira Oronozko errebestetan

Arratsean luntxa eskainiko da eta gauez dantzarako aukera ere ez da faltako

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz irailako azken larunbatean besta giroa nagusituko da Oronozen. Errebestak ospatuko dituzte irailaren 24an eta herriko gazteek eguna borobila izan dadin egitaraua

prest dute. Eguerdian mahaiaren bueltan bilduta emanen diete hasiera bestari, 14:00etan zikiro jatea antolatu dute. Bazkalondoa musikariaren laguntzaz, dantzarako aukera ere ez da faltako. 20:30ean herri kirol saioa eskainiko dute herritarrek, tartean Bittor Elizagoien eta Exteban Arrutik. Segidan, 22:00ak aldera, luntxa izanen da eta indarrak berreskuratu ondotik, gauean berriro ere dantzarako aukera izanen da Oharkabe taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oronozko gazteak gogotsu daude errebestetan edo besta ttikietan parte hartzeko.

IRAILEKO BIGARREN ASTEAN HASIKO DITUZTE LANAK

Baztango Udalak Orabidea, Zuaztoi eta Agerre aldeko bideetan brea botatzeko lanak eman ditu

Udalaren hasierako aurrekontua 108.300 eurokoa zen (BEZ gabe) eta lanak emateko egin zen prozedura irekian hiru enpresa aurkeztu ziren. Eskaintza hoberena Construcciones Boreste, SAK egin zuen, 84.939 euroan, eta lanak beretako izan dira. Lanak irailako bigarren astean hasiko dituzte.

Bagorditik Orabideko bidean 1,5 kilometroko tartean botako da brea, Azpilkuetako Zuaztoi auzoan, auzoraino gelditzen diren 130 metroetan eta Elizondoko Agerrea alderdian 1,8 kilometrotan. Lan hauen garrantzia aipatu dute Baztango Udaletik, «bide hauek Baztango auzo eta baserri desberdinetarat doaz eta herritarren guttieneko ongizatea bermatzeko beharrezkoak dira».

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



***10.000€-ko sukaldea barne**

Ezaugarriak:

- 101 m²ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m² eta 75 m²ko etxebizitzak
- 144 m²ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

***126.000€**

S
AROB
ERAIKUNTZAK

info@sarobe.eus

www.sarobe.eus

629 687 171

mmstudio-k diseinaturia
www.mmstudio.info - 651 776 998

GIZARTEA → HAURRENDAKO URRITIK EKAINERA ARTE

Euskarazko aisialdi eskaintza prest

TTIPI-TTAPA

Urritik ekainera arte, eskolaz kanpoko zenbait jarduera euskaraz egiteko aukera eskainiko du Baztango Udalak. Haur eta gaztetxo-en artean euskararen erabilera sendotzea da helburua, eskolatik kanpoko harremanak euskaraz izatea, hain zuzen ere. Beti ere lagunartean, jarduera jostagarrien bidez, ongi pasatuz.

Haurren sare linguistikoa josi nahi da, eta euskararen erabilera kalitatez hobetu, kaleko hizkera eta esaerak sartuz jokoetan. Gainera, hizkuntzaz gain, baloreak ere landuko dituzte: ingurumenarekiko errespetua eta zaintza-beharrak, parekidetasuna, elkartasuna...

Baztan osoko haurrei irekia da eta hiru talde osatuko dira. **Elizondon Jauzi** aisialdi taldea larunbatero bilduko da 17:00etatik 19:00etara Arizkunenean. Lehen

Hezkuntzako ikasleei zuzendua dago eta 60 euro ordaindu beharko da ikasturte osoa.

Erratzun, berriz, *Baratze, sukaldaritza eta birziklapen eskolak* eskainiko dituzte asteazkenero 15:30etik 17:30era. 7 eta 14 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzenduta daude eskolak eta 120 euro ordaindu beharko dira. **Birziklapen** eta **sukaldaritza** eskolak Lisutegian eta Etxelebert elkartean emanen dituzte eta herriko lur-sail batean egingen dute baratze-eskola. Eta akitzeko, **Oronozen**, *Larunblai* antolatu dute, bi larunbatean behin, 16:00etatik 19:00etara. Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.mailara arteko ikasleak arituko dira eskolan eta 30 euro ordaindu beharko dira.

Interesa dutenek irailaren 26tik 30era arte egin beharko dute izen-ematea, plaza mugatuak daude.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Ameriketara ibilitako euskal artzainak, Uxue Barkosekin Nafarroako Tronuaren Aretoan.

NAFARROAKO GOBERNUAK HARRERA EGIN ZIEN IRAILAREN 2AN

Ameriketara ibilitako euskal artzainak ohoratu dituzte Iruñean eta Izaban

TTIPI-TTAPA

Erronkariko Izaban ospatu zuten Ameriketara ibilitako euskal artzainek beraien eguna irailaren 3an, *Urritxan Biltruk* goiburupean. 440 bat artzain eta senide elkartu zen eta omenaldia eskaini zitzaion José Aguas bazkideari. Akabailan, bestaren lekukoa Legazpiko alkateak hartu zuen Izabakoaren eskutik.

Hamargarren edizioa bete du aurtengo artzain amerikanoen bestak. Ibilbidea 2005 hasi zen, Lesakan, bertako artzain taldetxo bat bildu zenean. Hori izan zen hurrengo urtean, 2006an, berritua Lesakan, ospatu zen bestaren lehen edizioa. Horregatik, 10 urte hauetan egin diren festa eta ekimen ezberdinetako argazkiak biltzen dituen egutegi bat egin dute, eta bazkide eta erakun-

de desberdinei banatuko diete, euren esker ona adieraziz.

NAFARROAKO PRESIDENTEAK HARRERA

Amerikan izandako Euskal Artzainen Elkarteko ordezkariak irailaren 2an Tronuaren Aretoan egindako harreraren zehar, artzainei «beraien lan-bizitza guztian» Nafarroako gizarteari egindako ekarpena esker-tu zuten Uxue Barkos Nafarroako presidentek, bai eta «guztioi ematen diguzuen ahalegin eta hobetzeko grinaren eredu bikain» horregatik ere. Ekitaldi horretan, Herriartekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok ere parte hartu zuen, baita Laura Igantzi elkarteko ordezkariak, Ana Maria Marin margolariak eta zenbait artzainek.



Baztango Udala

HAURRENDAKO AISIALDI ESKANTZA URRITIK EKAINERA euskaraz

Izen-ematea : irailaren 26tik 30era
Euskara Zerbitzua: 948 58 00 06
euskara@baztan.eus

ELIZONDON JAUZI

Larunbatero
17:00-19:00
Arizkunenean, LH1etik LH6ra
60€/ikasturtea

ORONOZEN LARUNBLAI

Bi larunbatetik behin
16:00-19:00
Eskolan, LH 3tik-LH6ra
30€/ikasturtea

ERRATZUN BARATZE, SUKALDARITZA ETA BIRZIKLAPEN ESKOLA

Asteazkenero
15:30-17:30
7-14 urte
120€/ikasturtea

ZUGARRAMURDI

KULTURA → BI URTEKO IBILBIDEAREN ONDOTIK

Bestetan azken kontzertua eman zuen Toomatrixak musika taldeak

Hogeita bortz bat kontzertu eman dituzte, baina taldekide batzuk ezin dute segitu

Margari eta Koro

Toomatrixa taldeak Andreamaritan eman zuen kontzertua, gazi-gozoa izan zen: sekulako giro pulita eman zuten, baina beraien azkeneko kontzertua izan zen.

Talde gaztea da, duela bi urte hasi ziren, eta denbora hortan hogeita bortz bat kontzertu eman dituzte. Hoietakoz batzuk gure ingurutik franko urrun, adibidez Arabako Gorribusto herrian.

Orain, taldeko batzuk ezin dutela segitu eta utziko dute, baina jarraitzaile aunitz daukatenez... auskalo, agian itzuliko dira...

Kepa Junkeraren kontzertua urriaren 1ean

Urriaren 1ean Kepa Junkerak kontzertu bat emanen du lezeetan. *Maletak* izeneko bere azkeneko diskoaren kantuak emanen ditu, eta musikaz gain, ikusizun bisuala ere sartu nahi du. Horretarako, herriko Sorgin haizea antzerki taldearen laguntza izanen du.

Kontzertua ilunabarrereko 8etan hasiko da, eta sarrerak 15 euro balioko du (museoan daude salgai, edo baita Rural Kutxan online ere).

Espainiako Vuelta herrian barna

Irailaren 2an *Vuelta España* txirrindulari lasterketa Xareta inguru hauetan ibili zitzaigun. Telebistan ikusten ditugu pankarta, kartel, moto, kotxe, jarraitzaile eta



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Toomatrixa-ko kideek beraien azkeneko kontzertuan umore puntu bat eman nahi izan zuten, eta zapel eta boa banarekin mozorroturik agertu ziren.



BURKAITZEA

JATETXEA - ERRETEGIA



Eguneko menua,
Plater konbinatuak,
Karta, Bazkariak,
Sandwichak...

Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296
restaurantburkaitzea@gmail.com



T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibardin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE



ONDAREA → NAFARROAKO ZAHARRENAK LIRATEKE

Paleolito garaiko grabatu berriak aurkitu dituzte Alkerdi II lezean

Harrobiko lanekin ez jarraitzea gomendatu dute Aranzadi Zientzia Elkarteak

TTIPI-TTAPA

Aranzadi Zientzia Elkarteak Nafarroako Gobernuaren enkarguz egindako ikerketa batek agerian utzi du Paleolito garaiko grabatuak daudela Alkerdi II lezean. Orain artean ezezagunak ziren eta Nafarroan aurkitutako zaharrenak lirateke. Hori dela eta, Aranzadi Harrobiko jarduerarekin ez jarraitzea gomendatu du. Aurkikuntza berriei Nafarroako Kultur Ondarearen Foru Legea aplikatu dakieke; hark Kultur Intereseko Ondasun izendatzen ditu labar-

arteko adierazpenak dituzten kobak, aterpeak eta tokiak. Hori dela eta, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatu du lezea, Kultur Intereseko Ondasun gisa eta Arkeologia Eremu kategoriarekin.

Nafarroan sekula aurkitu diren grabaturik zaharrenak dira Alkerdikoak eta lurraldean topatu diren lehenengo grabatu paleolitikoak.

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera jakinarazi zituen Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako ikerketaren emaitzak. Alkerdiko mendigunearen eta sistema karstikoaren karakterizazioari buruzkoa izan da txostena eta harrobiak zuzenean kaltetutako ere-



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako Vueltaren etapa bukaera eta hasiera

Txirrindularitza munduaren ahotan ibili zen herria iraileko lehen aste hondarrean. Irailaren 2an, Bilbotik zetorren etaparen bukaera izan zen Dantxarinean eta jendetza bildu zen. Beharbada biharamunean bertatik abiatu eta Aubisquean bukatu zen etaparen beldurrez, uste baino motelago ibili ziren txirrindulariak ortziraleko etapa bukaeran. Txirrindularien eta karabanaren etorrera baliatu zuen ELA sindikatuak Dantxarineko bentetako lan baldintzak salatzeke.

mua aztertu dute. Hiru kilometroko leze galeriak kartografiatu dituzte eta aztarna gehiago atzemateko aukera ere oso handia omen da. Harrobiak lanean segitzeko aukerak kezka larria eragiten diela ere adierazi dute, «harrobiaren lanak Alkerdi II lezean labar artea duen paretatik 24 metrotara daude eta leze horretan jadanik harrobiak eragindako kalteak ageri dira. Mota guztietako infiltrazioak eta industria gaiak aurkitu ditugu.

Baldintza hauetan ezin da bermatu lezearen iraupena eta gainera, Europako Batasunak ondare arkeologikoa babesteko hartzen dituen neurri guztien aurka doa».

Egun, Marmoles de Baztan enpresak dauka harrobia ustiatzeko baimena eta ofizialki zuzalakea eta leherketako lanak etenda daude. Abuztuan, baina, enpresak Gobernuari lanei metodo berriei berriz ekiteko asmoa adierazi zion eta Ana Herrera

Kultura kontseilariak «lanak bertan behera uztea komeni» zela azaldu zion arren, abuztuaren 25ean legeei planto eginez harrobiak lanean segitzen zuela salatu zuen SOS Alkerdik.

Abuztuaren 30ean egindako udal bilkuran, Aranzadi eta Nafarroako Gobernuak adierazitako ildotik, lan berri ezin dela egin ondorioztatu zuten eta lezeak Interes Kulturaleko Ondare lehenbailehen izendatzea eskatu zioten Gobernuari.

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa
www.facebook.com/ttapi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA

pinturasalzuyet@yahoo.es

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

SENPERE

GERTAERA → BURUILAREN 3AN

Erresuma Batuko turista batek bortz hilabeteko haurra ito du aterpetxe batean

42 urteko emakumeak bere alaba hil zuela uste dute

Franck DOLOSOR

Gure herriaren izena hedabide nagusienetan agertu da azken egun hauetan eta ez baitezpada berri ona aipatzeko. Gan den buruilaren 3an, turista britainiar bat arrastatu zuten jendarmek 5 hilabeteko ninia ito zuelakoan lo zelarik. Bi egunez jendarmek galdekatu dute 42 urteko emaztea eta ondotik psikiatria zerbitzu batean sarrarazi dute. Ezbeharrak herriko udako aterpetxe batean gertatu zen. Emaztea-

ren senarrak salatu zuen gertatu zena etxerat itzuli zelarik. Bikotearen haur zaharrena, 3 urteko umea, bizirik atxeman zuten. Lerro hauek idaztean ikerketak segitzen zuen. Zonbat egunez gizonak ezin izan du Erresuma Batuarat itzuli ikerketa egiten laguntzeko hobe baita Euskal Herrian egotea.

Eskolarat

Mila ikasle eta hamarnaka erakasle eskoletarat itzuli dira buruil hastapen hontan herriko 7 gunetan: haurtzaindegia, lehen hezikuntzako lau eskoletan, Arretxea kolegioa eta Saint Christophe lanbide eskolan. Amotzeko eskolaren sartzearen se-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Vuelta Senperen barna

Senpertar ainitzek ongi etorri kartsua egin diote Espainiako Vueltari buruilaren 2an. Egun hortan Bilbo eta Urdazubi artean ibili ziren txirrindulariak eta tartean gure herriko zenbait eremu zeharkatu zituzten Dantxarinetik Sararat gateko Luberria eta Herburuan barna. 1996an, ibilbide bera egin zuen Frantziako itzuliak txirrindulariak Iruñea eta Hendaia artean ibili zirelarik. Tourraren pasagunea baino etapa baten abiatzeko tokia izan nahi luke orain gure herriak eta gisa hortan Senpereko herriko etxeak bere hautagaitza aurkeztu du munduko txirrindularitza lasterketa ospetsuenak etapa bat egin dezan gure herrian. Aintziratik egin liteken abiatze hori heldu diren urteetan eginen litzateke. Tourreko zuzendaritzak deliberatuko du orain noiz eta nola egin Lapurdiko etapa hori. Senpereko kirolzale batzuek talde bat osatu dute eta solasak aitzinatua dituzte jadanik Tourreko antolatzaileekin. Vueltak Euskal Herrian egin dituen etapen kariatat Christian Prudhomme Tourreko zuzendariarekin hortaz berriz mintzatzeko parada izan dute lapurtarrek. 60.000 euroko inbertsioa egiteko prestatzen ari da herriko etxea, laguntzaile eta inguruetako erakunde publikoen laguntzarekin. Senpereko merkatariek pozik daude beren ustez jendetza ekarriko baitu Tourrak eta herria mundu osoan ezagutarazteko parada eskainiko baitu. Iaz, Zuberoan barna ibili zen itzuli famatua baina aspaldi du ez dela etaparik izan Euskal Herrian. 2003an Baionarat heldu ziren txirrindulariak eta 2006an Kanbotik abiatu.

gurtasuna hobetzeko argi gorriak ezarri ditu herriko etxeak. 50 kilometroren abiada muga

gainditzeko badute ibilgailuek argi gorria piztuko da eta gelditu behar dute. San Josep es-

kola girixtinoan zuzendari berria dute: Célin Clément anderea, hain zuxen.

ABUZTUKO HIRU ASTEBURUTAN

Hats-Arte erakusketa ikusgarria eskaini dute Larraldean

TTIPI-TTAPA

Hatsaren Poesia urteroko olerki liburuan parte hartzen dutenen artean artista aunitz baidirela ikusiz, Hatsa elkartek, aurtan lehen aldiz Hats-Arte talde-animazio erakusketa bat egituratu du Larraldean abuztuko lehen hiru asteburuetan.

Erakusketaz gain, bi

larunbatez oinezko ibilaldi bat egin dute Senpereko xendretan barna eta gero, Larraldean, bazkari-animazio-poesia giro bat sortu.

Kontzertu eta bideo bereziak ere izan dituzte. Hats-Arte erakusketan parte hartu duten artistak honako hauek izan dira: Titto Aguer, Agurtzane Anduetza, Maddi



Andueza, Iñaki Bastarrika, Idoia Beratarbide, Mikel Dalbret, Juan-Manuel Galarraga, Itziar Gomez, Ennio Castilla-Andueza, Gustavo Caste-

lla, Koldo Goitia, Imanol eta Joan Mari Irigoien, Manuel Iturrioz, Josu Jimenez-Maia, Gabriel Korta-Rekarte, Jokin Lassa, Miquel Saumell, Ai-

nara Maia, Maite Ramos-Fernandez, Maite Toledo, Carmen Valois, Auxtin Zamora, Jose Mari Zendoia eta Maddi Zubeldia.

KULTURA → IRAILAREN 15ETIK 25ERA

Isidro de Monzon arkitektuari buruzko erakusketa idekiko dute Lur Berri gelan

Larrun mazeletako arditegietan oinarrituz ipar Euskal Herriko arkitektura eraberritu zuen

Joana GERENDIAIN

Irailaren 15etik 25 era Lur Berri gelan Isidro de Monzon arkitektuari buruzko erakusketa bat

izanen da ikusgai. Isidro de Monzon XX. mendeko arkitektu bat da, Saran egona, eta berak zuen Ipar Euskal Herriko arkitektura eraberritu Larrun mazeletako arditegietan oinarrituz. Erakusketa egunero idekia izanen da goizeko 10:30etik 12:30era eta arratsaldeko 3etatik 6:30ak arte. Irailaren 17an arkitektuaren etxe baten bisita proposatua da, hi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sarako haurrak oporretan

Aurten Larrun Tiki aisialdi zentroko 25 haur eta 3 animatzailek aste bat Pirinio-tako Ponts de Camps aterpetxean pasa dute. Egonaldi horretan aktibitate ezberdinak egin dituzte, hala nola Assoneko zoora bisita, bizikleta, eskalada eta rafting-a, egun bat pasa dute artzain etxola batean eta aukera izan da haientzat gasna ekoizteko eta dastatzeko. Bidaia honi esker haurrek elkarbizitza landu, ingurumena errespetatzen ikasi eta aukera izan dute norbere mugak ezagutzeko. Esperientzia ona izan da bai haurrentzat eta baita animatzaileentzat ere, ezagutza aberasgarriak eta aktibitate interesgarriak egin baitituzte, hori dena leku zoragarri eta lasaigarri batean.

tzordua Lur Berri gelan emana da 14:30ean.

Usategietako besta

Irailaren 25 ean Etxalar eta Sarako herriak

Lizarrietako lepoan elkartuko dira uso ehizari buruzko akordioak izenpetzeko. Egun horretan merkatu bat egingen da kaskoan eta bota luze

partida bat ere ikusten ahalko da, Karrote lehiaketa. Arratsaldeko 2:30ean bazkari bat izanen da Saranga txarangak animatua.

KULTURA → URRIAREN 9AN

Zazpiak Bat taldeak bultzaturik Kabalkada emanen dute plazan

80 bat heldu motibatu dira proiektuan parte hartzeko

Joana GERENDIAIN

Heldu den urriaren 9 an, arratsaldeko 3etan, plazan sarratarrek kabalkada bat emanen dute. Proiektu hori Zazpiak Bat taldeak bultzaturik gauzatu da, 2011ko *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarriaren ildoa

